

# Ekonomia Ekologikoaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren arteko hurbilketa. Agenda bateratu baterako elementuak

*An approach between the Ecological Economy and the Social and  
Solidarity Economy. Elements for a unified agenda*

JON RUIZ DE GALARRETA ARBULO, Pablo ARRILLAGA MÁRQUEZ\*

**Laburpena:** Geroz eta ageriagoa den ingurumen-iraunkortasunaren inguruko krisiak etorkizun zehaztugabea planteatzen du geure gizarteetan. Horrenbestez, ekonomia neoklasikoari eta kapitalismoari lotutako proposamenen porrota ageria denean, premia handia dago ingurumenak planteatzen dituen erronkei erantzuna emango dioten bestelako proposamenak eskaintzeko. Artikulu honen bitartez, ekonomia heterodoxoen artean aurkitu ditzakegun Ekonomia Ekologikoa eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren arteko harremanetan sakondu nahi da. Izan ere, hauen arteko hurbilketa batek ingurumen eta gizarte krisiei erantzuteko konbergitu dezakete. Horretarako, ohiko ekonomiak erabiltzen duen ikuspegi analitikotik aldentuta, eta naturarekiko eta gizartearekiko bestelako harremanak planteatzen dituzten bi eredu hauen arteko bateragarritasun, desadostasun eta adostasunetan arakatu da, agenda partekatua aurrera eramatea ahalbidetzen dieten elementuak aztertzeko.

**Hitz gakoak:** Ekonomia Ekologikoa, Ekonomia Sozial eta Solidarioa, Ingurumen Ekonomia, Ingurumen-iraunkortasuna.

**Abstract:** The increasingly crisis of environmental sustainability presents an uncertain future for our societies. Therefore, when the neoclassical economy and capitalist proposals fails, there is a great need to offer other proposals that respond to the challenges posed by the environment. This article aims to delve into the relations between the Ecological Economy and the Social and Solidarity Economy that we can find among the heterodox economies. In fact, an approach between them can converge to respond to both, environmental and social crises. To that end, far from the analytical approach used by the dominant economy, have been analyzed the converging elements, disagreements and points of agreement between these two models. Keeping in mind that both pose a different relation with nature and society, in order to explore elements that allow to advance in the shared agenda.

**Keywords:** Ecological Economics, Social and Solidarity Economy, Environmental Economics, Environmental Sustainability.

**Econlit gakoak:** B55, Q57, Q01.

\* **Harremanetan jartzeko/Corresponding author:** Pablo Arrillaga Márquez. Ikerlaria, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. (UPV/EHU) – [pablo.arrillaga@ehu.eus](mailto:pablo.arrillaga@ehu.eus)

**Nola aipatu/How to cite:** Ruiz de Galarreta Arbulo, Jon; Arrillaga Márquez, Pablo (2020). «Ekonomia Ekologikoaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren arteko hurbilketa. Agenda bateratu baterako elementuak», *GIZA EKOA - Revista Vasca de Economía Social*, 17, 35-70. (<https://doi.org/10.1387/gizaekoa.21450>).

Jasoa: 04/02/2020; onartua: 18/02/2020.

ISSN 1698-7446 - eISSN 2444-3107 / © 2020 UPV/EHU



Obra hau Creative Commons Atribución 4.0 Internacional-en lizentziapean dago

## 1. Sarrera

Ahots ezberdinek ohartarazten dute gizakiak kolapsorako bidean doan zibilizazioaren parte direla, baita gizartea krisi estruktural batean murgilduta dagoela ere. Krisia ekonomikoa dela, baina soziala, politikoa, kulturala... eta ekologikoa ere bai. Azken alderdi honetan arreta jartzen bada, esan daiteke gizartea mundu naturalaren mugekin talka egiteko prozesu batean sartu dela jada. Are gehiago, *Antropozeno* bezala ezagutzen den aro berrian guztiz sartuta dago, non gizakiak ekintzen bitartez biosferako prozesuen moldatzaile nagusienak bihurtu dira. Eta honen atzean, argi dago, eredu ekonomikoa aurkitzen dela. Hala ere, hau ez da berria. Duela ia 50 urte, *Meadows* txostena<sup>1</sup> argitaratu zenean ohartarazi zuten eredu ekonomikoaren sostengarritasuna ezinezkoa zela. Alabaina, mundu ekonomikoan ekonomia neoklasikoak, sistema kapitalistak eta ideologia neoliberalak osatzen duten trinomio hegemonikoak oharpen hauek guztiak baztertu ditu hazkunde ekonomiko mugagabearen izenean.

Honen aurrean, esparru ekonomiko-akademikoan sarri alde batera utzi izan diren bi ikuspegi berreskuratzen dira artikulu honetan. Ekonomia Ekologikoa eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa hain zuzen ere. Biek abiatzen direlako egun ekonomikoa ulertu ohi denaren kritika batetik, eta biek, aipatutako krisi ekologikoa gainditzeko lehenengo pausoak eman dituzte, edo behintzat, hauek emateko alde aurretiko jarrera erakusten dute. Horrenbestez, artikuluak Ekonomia Ekologikoaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren hurbilketa burutu nahi du, etorkizunean ahalik eta agenda partekatatu osatuena aurrera eraman ahal izateko. Hala ere, artikulu honen asmoa ez da hainbeste proposamen berri batean sakontzea, adibidez «Ekonomia Ekologiko eta Solidarioa» (Barkin eta Lemus, 2011; Rosas-Baños, 2012) termino berriarekin egin den bezala, baizik eta Ekonomia Ekologikoak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioak elkarren arteko harremanetan sakontzea ahalbidetuko duten bateragarritasunetan arakatzea.

Horretarako, lehenengo, Ekonomia Ekologikoaren zein Ekonomia Sozial eta Solidarioaren gainbegiratu teoriko laburra burutu da. Ondoren, elkar partekatzen dituzten elementuak eta bi ikuspegiak urrundu dezaketen desadostasunak aztertu dira, azkenik bateragarritasunak aztertzeke.

## 2. Ekonomia Ekologikoaren inguruko hurbilketa teorikoa

Gizartean nagusi diren ohitura kaltegarriak, ekoizpen kutsagarria, kontsumo masiboa, naturaren zapalkuntza, munduko baliabideen eros ahalmen

---

<sup>1</sup> *Meadows* txostena edo *The Limits to Growth*, Erroma Klubak MIT institutuari eskatutako txostena da. 1972. urtean argitaratu zen eta Donella Meadows ingurumen-zientzialaria izan zen txostenaren ikertzaile nagusia. Txostenaren hipotesi nagusia, planeta mugatu batean, hazkunde esponentziala ez dela iraunkorra.

desorekatua... eta, oro har, ingurumen-iraunkortasuna suntsituko duen sistema ekonomikoak, badu bere oinetako horma bai gizartean, bai esparru akademikoan. Hala, azken esparru honetan arreta jarriz, aurreko mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan, ingurumen narriadura nabarmen biziagotu eta aditzera ematen hasi zen gehien bat garatutako herrialde industrializatuetan (Ballester, 2008). Ardura honek, ingurumenarekiko gaiei buruzko interesa piztu zuen urtez urte. Eta beraz, azken hamarkadetan indartutako naturaren inguruko ardura heldu da ere, beharbada, behar zuen baino beranduago, analisi ekonomiko modernoetara. Izan ere, XVIII. mendeko ekonomialari fisiokratetik ez da planetaren iraunkortasunaren inguruko ardurarik izan ekonomialarion artean. Atal honetan, ingurumen-iraunkortasunari heldu dioten eta garrantzi esanguratsua lortu duten bi ikuspegiak hurbildu izan da. Lehen, ekonomia ortodoxotik hurbilago dagoena eta bigarrena, artikulua honen ardatzetako bat izango dena, heterodoxoa eta ikuspegi kritikoarekin.

## 2.1. *Ingurumen Ekonomia*

Lehenengo ikuspegia, Ingurumen Ekonomiak (aurrerantzean IE) osatzen du. IEk ohiko ekonomiaren praktika analitiko eta kontableak ingurumen ikuspegi batekin osatzeko ekarpena gorpuzten du. Ikuspegi hau barneratu arte, analisi eta kontabilitate ekonomikoak, jarduera ekonomikoak sortzen zituen saldo positiboak soilik erreparatzen baitziren; jarduera ekonomiko horiek naturaren gain eragin zezakeen kalteak kontuan hartu gabe. Hauek, sistema naturalaren erreproduzio gaitasunari egozten baitzizkioten.

IE, ohiko ekonomiak ingurumen arazoan inguruko ardura honi ematen dion erantzuna da. Horretarako, ordura arte ondasun «libreak» zirenei, hots balioztatu gabe zeuden ondasun naturalei, kostu-mozkinaren logika aplikatzen die. Hau lortzeko, lehenengo, balioztatu behar dituelarik. Soilik modu honetan, ekonomialariek lortzen baitute euren eskura dituzten lanabesa analitiko eta kontableak hauen gainean aplikatzea; hau da, diruaren bitartez neurtu daitezkeen prezioak, kostuak eta mozkinak oro har (Naredo, 1994).

Modu honetan, merkatuak ingurumenaren krisiari irtenbidea aurkitzen dio honen inguruko ardura areagotu bezain laster. Izan ere, ohiko ekonomiak ez zuen hazkunde ekonomikoa zalantzan jartzen zuten ahotsei lekurik utzi nahi (Pearce *et al.*, 1995). Horretarako, ingurumenari aplikatutako lanabesa analitiko neoklasikoak erabiltzen ditu, baliabideen kudeaketa administratibo eraginkorraren logikapean. IEk, hala ere, ez du bakarrik aditzera ematen bere ardura kapital naturalaren dimentsio kritikoagatik, ingurumenaren kutsaduragatik edo iraunkortasun planetarioagatik, baizik eta, ingurumen narriaduraren azalpenaren zergatia ere barneratzen du; beti ere ekonomia neoklasikoaren ikuspegitik. Horretarako, erabili eta aplikatu izan ditu merkatuan azaleratzen

diren desorekak zuzentzeko, neoklasikoen ustetan gai diren metodoak: ingurumenaren kanpo eraginak negatiboak, alegia (Ballestero, 2008).

Ingurumenaren kanpo eragin negatiboak, jarduera ekonomikoetatik sortzen diren hirugarrenetikiko ingurumen-kostuak dira. Kostu hauek sortzeagatik, ez zuen ordainetan ezer ez suposatzen, merkatu akats gisa kontsideratzen baitziren; baina IErekin, kanpo eragin hauek sortutako kalteei balio monetarioa ezartzen hasi ziren (Ballestero, 2008). Horretarako, ondasun hauen gaineko jabegoa ezarri eta merkatu bat sortu edo simulatu behar dutelarik; salgai bezala balio bat izan dezaten. Eta beraz, orduan bai, hauekin eragiketa ekonomikoak egin ditzakete eta balore teorikoak egotzi «aukera kostuak», «itzalpeko prezioak», «kontingentziako baloreak» eta abarren laguntzarekin (Naredo, 1994).

Oro har, IEk hiru oinarriko zeregin proposatzen ditu (Ballestero, 2008:57):

- Baliabide naturalen balorazio ekonomikoa.
- Ingurunearen gaineko eraginak balorazio ekonomiko bat izatea.
- Tresna ekonomikoen erabilpena bere analisisetan.

## 2.2. *Ekonomia Ekologikoa*

Bestalde, Ekonomia Ekologikoa (aurrerantzean EE) 70eko hamarkadan egin zuen agerpena, ingurumenarekiko eta hurrengo belaunaldiakiko hainbat ekonomialarien kezkatatik eratorrita. Ekologismoaren barruan sortu izan diren ideia eta teoriak ekonomiaren esparru batean bereganatuak izan dira, garapen iraunkorarekin amets egin duten ekonomia sortuz. Hala ere, nahiz eta iraunkortasunaren inguruko adostasun akademiko zabala egon, ezberdintasun ugari azalarazten dira zientzialariek teoria eta praktikak proposatzeko garaian. EEa beraz, garapen historikoaren eboluzio konplexua da, non hazia den iraunkortasunaren arazoari planteatzen zaizkion erantzunak, ikuspegi ezberdinen eta aktibitate zientifikoaren diziplina anitzen arteko elkarrizketaren alde nabarmentzen den (Costanza, 1999).

Hala ere, EEak egiten duen ekarpena definitzea ez da erraza. Izan ere, ekonomia eta ekologiaren arteko harremanak hautsiak daude, esan dugun moduan, XVIII. mendeko ekonomialari fisiokratetatik.

Fisiokratek zioten hazkunde ekonomikoa, hazkunde fisikoarekin bat egin behar zuela; hots, naturaren ugalketa denborak errespetatu behar zituela. Alabaina, autore neoklasikoek bere egindako sistema ekonomikoaren ideiatik aurrera, ekonomia esfera isolatu bat bezala eraiki zuten, non mundu fisikoak ezartzen dituen baldintzak ez diren aintzat hartzen. Orain ekonomiaz hitz egiten dugunean, balioztatu, eskuratu eta ekoiztu daitezkeen objektu multzoei buruz hausnartzen ohi dugu (Naredo, 1994 eta 2002; Pérez *et al.*, 2012; He-

rrero, 2013). Eta ekologiaz ari garenean aldiz, XVIII. mendeko ekonomialari fisiokratak bezala, biosfera eta lurra osatzen duten baliabideen multzoari buruzko hausnarketa sakona egiten da (Naredo, 2002). Horrenbestez, bi diziplinen arteko ikerketa-objektua urruntzen joan da, eta horregatik esaten dugu EEa definitzea ez dela erraza. Hori dela eta, Costanzaren (1989:1) definizio orokorra hartu izan da artikulua honetan: «Sistema ekonomiko eta ekosistemaren arteko elkarrekintzen gaineko ikasketa da zentzu zabalean».

EEak beraz, ekonomiaren eta ekologiaren arteko hurbilketan sakontzen du. Eta honek, argi dago, ekonomia ikusten eta aztertzen duen ikuspegia aldatzea eskatzen du. Ohiko ekonomiak, ekonomia sistema itxia eta autorekatua dela onartzen du. Aldiz, EEak, sistema handiago baten —biosfera— azpisistema bezala kontsideratzen du ekonomia; eta hauen arteko materia eta energia trukaketa etengabekoa dela. Ondorioz, ekonomia sistema irekia da (Naredo, 2002 eta 2006). Eta aldi berean, biosfera sistema itxia da, behintzat materialei dagokionez, kanpotik soilik eguzki energia jasotzen baitu. Eta ez du, beraz, tamainaz hazteko gaitasunik.

Ikuspegi honetatik, ekonomia biosferaren menpe dago; eta orduan, biosferan eragiten duten lege fisiko eta naturalen menpe. Zentzu honetan, EEak termodinamikaren legeetara jotzen du prozesu ekonomikoen muga fisikoak azaltzeko.

Hala, termodinamikaren lehenengo lege ospetsuak honela dio: materia eta energia ez dira ez sortzen ez suntsitzen, bakarrik eraldatzen dira. Kontserbazio-legea da hori; izan ere, materia/energia sistema isolatu batean kontserbatu egiten direla adierazten du (Etxano, 2015). Honek esan nahi du, erabilitako baliabideak bihurtu eta urratu daitezkeela, baina inoiz ez direla desagertuko (Pearce *et al.*, 1995). Bestetik, termodinamikaren bigarren legeak, Entropiaren Legea bezala ere ezagutzen denak, materia eta energiaren degradazio progresibo eta itzulezina azaltzen du. Modu honetan, materiak eta energiak kalitatea galtzen dute jasaten dituzten transformazio prozesu bakoitzean, hots, prozesu ekonomiko bakoitzean. Eta beraz, hauen forma erabilgarri edo ordenatu batetik, forma ez erabilgarri edo desordenatu batera igarotzen dute, azkenean hondakin moduan gelditzeko. Laburbilduz, nahiz eta materiak eta energiak kontserbazio-lege batera lotuta egon eta sunstisiezina izan, aldi berean, degradazio lege batera ere lotuta daude. Hortaz, euren erabilpenerako kalitatea galtzen joaten baitira hondakinak bihurtu arte (Georgescu-Roegen, 1971; Aguilera eta Alcántara, 1994; Naredo, 1994; Costanza, 1999; Pérez *et al.*, 2012).

Ildo honetan ere, EEak ekosistemek duten hondakinen asimilaziorako gaitasuna gainditzeko arriskuari buruz ohartarazten du. Izan ere, hauen sunsiketak gizakien bizitzaren sunsiketa dakartza, hauekiko dagoen dependentzia agerikoa baita. Eta aldi berean, fisiokratak zioten bezala, sistema biologikoetatik ateratzen duguna, hauen berriztagarritasun errendimenduak

errespetatu behar ditu, hauek suntsitu nahi ez badira (Aguilera eta Alcántara, 1994). EEaren ikuspuntutik, ekonomiak funtzionatzen jarraitu nahi badu, kontuan izan beharko du baliabide iraunkorren (eguzki energia, haizea...), berriztagarrien (elikagaiak, egurra, hondakinen asimilazioa...), ez berriztagarri baina birziklagarrien (mineralak) eta ez berriztagarri eta birziklatu ezin direnen (petrolioak, ikatza...) artean dagoen funtsezko ezberdintasuna. Eta, ildo honetan, lehenengoan eta bigarrengoan (hauen berriztagarritasun errendimendua errespetatuz) erabilpena sustatu (Pérez *et al.*, 2012).

Finean, EEak fisikaren eta naturaren legeak kontuan izan behar dituen eredu ekonomiko baten alde egiten du. Halaber, lege hauen errespetu ezak, gizakien bizitza suntsitzeko arriskua ere handitzen du. Are gehiago, Aguilera (1992) esaten duen moduan, ingurumen arazoak zuzentzeko, ekologiara jo behar da, eta ikuspuntu horretatik, ekonomia eta gure gizarte ereduak aldatu. Hortaz, EEak ekonomia konbentzionalari kritika bat eskaintzen dio, gainera, gizakiak ingurumenean duen eragina epaitzeko eta azaltzeko tresnak eskaintzen ditu; EEak belaunaldi-arteak aintzako-tzat hartzen ditu, baita sortzen diren banaketa gatazkak belaunaldi honen barnean ere (Martínez-Alier, 1999).

### 2.3. *Ingurumen Ekonomiaren eta Ekonomia Ekologikoaren arteko ezberdintasun nagusiak*

IEk, kostu-mozkinaren logika aplikatzen die ondasun naturalei merkatuaren bitartez jarduera ekonomikoak sortzen dituen ingurumen kalteak arautu eta kontabilizatzeko. Adibide gisa, kutsadura murrizteko jaulkitako karbono bonuak izanik, zeintzuk, karbono dioxidoa igortzeko eskubidea ematen duten, eta salerosi daitezkeen. Bestalde, IEk, ekonomia ortodoxo neoklasikoak eskaintzen dituen lanabesetara egokitzen da eta ez ditu zalantzan jartzen ohiko ekonomiaren oinarriko premisak. Ingurumenaren kanpoko eraginak merkatu akatsekin berdintzen ditu; merkatuaren bestelako arloak funtzionamendu egokia dutela aditzera emanez. Hots, egoerara moldatzen saiatzen da merkatuari erantsiz ingurumeneko elementu eta funtzioak; eta beraz, merkatuan gertatzen ez dena, ikusezin bihurtzen da. Modu honetan, IErentzako jarduera ekonomikoak kutsadura soilik sortzen du, merkatuak eta bere inguruan dagoen marko legalak aitortzen dutenean (Aguilera, 1992).

Aldiz, EEa ondasunen izaera fisikoa eta hauek inguratzen duten sistema naturalen logika ulertzeaz arduratzen da lehendabizi. Horretarako, erabilitako ondasunen berriztapenerako gaitasuna, erabilgarritasun fisikoa, kaltegarritasuna eta produktuek sortutako hondakinen birziklapena aztertu behar ditu. Behin sistemen funtzionamenduaren logikaren jakinaren gainean egonda, marko instituzionala bideratzeko eta hainbat soluzio emateko prest egongo da, kostuetan, prezioetan eta erabilitako baliabideen kantitate-

tan, lortutako produktuetan eta igorritako hondakinetan oinarrituko direnak (Naredo, 1994). Hortaz, EEak bere teoria aplikatzeko eta soluzioak sortzeko beti inguruaren azterketa sakona egin beharko du. Herritarren eta ingurumenaren inguruko ikerketak oinarri izanda, gomendioak eta soluzioak analizatu eta ikertu ostean gai izateko iraunkortasunari lotutako arazoak konpontzeko.

Ildoarekin jarraituz, hurrengo taulak ekonomiak ingurumenarekiko izan dituen bi ikuspegiak laburbiltzen ditu:

### 1. taula

Ekonomia Ekologikoaren eta Ingurumen Ekonomiaren arteko alderaketa

Ekonomia ekologikoa	Ingurumen-ekonomia
1. Eskala optimoa	1. Esleipen optimoa eta kanpo eraginak
2. Iraunkortasunari lehentasuna	2. Efizientziari lehentasuna
3. Beharrianak asebate eta bidezko banaketa	3. Ongizate optimoa eta efizientzia Paretoaren zentzuan
4. Garapen iraunkorra, globalki eta Iparr/Hegoa	4. Hazkunde iraunkorra eredu abstraktuetan
5. Hazkundearen inguruko ezkortasuna eta hautatzeko zailtasunak	5. Hazkundearen inguruko baikortasuna «win-win» hautaketa
6. Aurretik jakin ezin den koeboluzioa	6. Denboraldi arteko ongizatearen optimizazio deterministikoa
7. Epe luzeko ikuspegia	7. Epe labur eta ertaineko ikuspegia
8. Osoa, integratzailea eta deskriptiboa	8. Partziala, diziplina bakarrekia eta analitikoa
9. Zehatza eta espezifikoa	9. Abstraktua eta orokorra
10. Adierazle fisikoak eta biologikoak	10. Moneta-adierazleak
11. Analisi sistematikoa	11. Kanpo kostuak eta balioztapen ekonomikoak
12. Irizpide Anitzeko Ebaluazioa (dimentsio anitzeko ebaluazioa)	12. Kostu/onura analisisa
13. Eredu integratuak kausa-efektu harremanarekin	13. Oreka orokorreko ereduak kanpo-kostuekin
14. Gizabanakoaren arrazionaltasuna mugatua eta ezjakintasuna	14. Utilitate eta mozkinen maximotzea
15. Erkidego lokalak	15. Merkatu globalak eta gizabanako isolatuak
16. Ingurumen-etika	16. Utilitarismoa eta funtzionalismoa

*Iurria.* Etxano (2015: 101), Van den Bergh-en (2000:9) oinarrituta.

Termino orokorretan, hala ere, EEak ez ditu IEk planteatzen dituen ikuspegiak baztertzen, bestetik, onartzen du egindako lana eta onartzen du ere gaineratu izan dituen tresnak erabilgarriak izan direla arazoaren erroak ulertzeko. Hala ere, motz gelditzen dela leporatzen dio, analisi sistematiko eta ko-ebolutiboa ez baitu lortzen eta analisi estatikoan eta krematistikoan gelditzen da.

EEarentzako kanpo eraginak edo hirugarrenetik inaktuak ezin dira ulertu sistematik kanpo, baizik eta, sistemarekiko berezkoak bezala ulertzen dira, termodinamikaren legeengatik. Hortaz, ez dira inongo kalterik barneratu behar, eta kontsumoa murriztu eta ekoizpenaren patroiak aldatu behar direla proposatzen da. Ekonomia ekoizpenaren eta kontsumoaren entropiaren murrizketa batera bideratuz; beti ere, ekoefizientzia eta ekologia industrialaren laguntzarekin prozesu parte-hartzaileak, solidarioak eta kooperatiboak izanda (Bermejo, 1994).

#### 2.4. *Iraunkortasun ahula eta indartsua*

Iraunkortasunaren ohiko ikuspegi ekonomikoek, gizakiaren ongizatearen terminoetan kokatzen dute gaia, erabilgarritasuna azpimarratuz. Izan ere, ikuspegi hauentzako garapena iraunkorra izango da, soilik eskaintzaren gaitasunak ez baldin badu gutxitzen infinitura doan erabilgarritasun per capita (Neumayer, 2003). Horrela, ohiko ekonomiak, iraunkortasuna hazkunde eta garapen ekonomikoaren arrakastaren menpe jartzen du (Naredo, 1996). Hau da, ekonomia iraunkorra izateko, lehenago, hazkundera, garapena edo ongizatea sortu behar ditu. Iraunkortasunaren ikuspegi ahul honek talka egiten du EEk eskatzen duen ikuspegi sendoarekin.

Aurrekoarekin jarraituz, Norton-ek (1992) iraunkortasunari erantzuna ematen dioten bi kontzeptuetara heltzen da, bi paradigma ezberdinetara: Iraunkortasun ahula (ekonomia arruntaren arrazionaltasun propiotik adierazita) eta beste bat sendoa (fisikaren ekonomia, hots, termodinamikagatik eta naturaren ekonomia, hots, ekologiagatik adierazita) (Naredo, 1996).

Iraunkortasun ahulak, kapital naturala kapital artifizialagatik ordezkatu ohi du. Izan ere, honek, bat egiten du, Etxanok (2015) esaten duen moduan, ongizate eta bizitzaren kalitatea neurtzeko irizpide askotako adierazleekin. Hortaz, iraunkortasun ahulak dimentsio sozialaren garapen positiboaren aitzakiarekin bere barnean garapen ekonomikoko adierazleak erabiltzen ditu, besteak beste, errenta per capita, langabezia-tasa edo sortutako lanpostuak. Hau da, jarduera ekonomikoak ingurumenari eragindako kalteen —kapital naturalaren narriadura— eta jarduera ho-



rrek sortutako onura sozialen —kapital artifiziala— arteko konpentsazioa ematen da. Hau posiblea izanik kapital naturala monetizatzen bada. Iraunkortasun sendoa aldiz, ekosistemen osasunagatik espresuki arduratzen da, bizitza eta sistema sozial oro —ekonomia barne— horien gainean txertatzen baitira; baina, azken honek sistema naturalen gainean duen eragina alde batera utzi gabe (Naredo, 1996). Ikuspegi honek kapital naturalaren eta artifizialaren arteko ordezkapena baztertzen du. Izan ere, nahiz eta erabilgarritasun termino neoklasikoetan eta ekonomikoki balioztatuta, bata besteagatik ordezkatu daitezkeen, errealitatean, kapital artifizialak ez dio kapital naturalari eragindako narriadura konpentsatzen. Hau da, iraunkortasun ahula paradigma neoklasikoarekin bat dator eta iraunkortasun sendoak paradigma ekologikoari egiten dio men (Etxano, 2015).

Laburbilduz, iraunkortasun ahulak ingurumenaren ondasunak ordezkatzeko aukera ematen du kapital manufakturuagatik, ondasun hauek eta euren narriadura balore monetarioetan neurtzeko asmoarekin (Martínez-Alier, 1999). Eta beraz, iraunkortasun ahula sistema kapitalistak duen tresna bat da, ingurumenaren baliabideak diruz balioztatzeko eta «win-win» agertokiak asmatzeko. Iraunkortasun sendoak aldiz, ikuspegi sistemiko eta hierarkikoa jarraitzen du non ekonomia naturaren azpi-sistema bat den eta ezin diren hauen arteko ordezkapenik egin, paradigma ekologikoa paradigma ekonomikoaren gainean dagoelako (Etxano, 2015).

### 3. Ekonomia Sozial eta Solidarioa

#### 3.1. *Hurbilketa teoriko laburra. Ekonomia Soziala, Ekonomia Solidarioa eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa*

##### 3.1.1. EKONOMIA SOZIALA

Enpresa pribatu kapitalisten eta sektore publikoaren artean, garatu izan dira historian zehar ekimen ezberdinak. Hauek, mozkin pribatua lortzea helburu duten enpresen eta birbanaketa publikoaren logikan lan egiten dutenen artean kokatu ohi izan direnak, elkarren arteko laguntza eta elkarrekikotasun printzipioak jarraitzen dituzte. Hirugarren sektore honek hastapenetara joatea bide luzea egitera behartzen du historian zehar. Adibidez, Defourny eta Develtere (1999) diotenez, antzinako elkartegintzaren arrastoak faraoien garaiko Egipton, erdi aroko Grezian edo Erromatar Inperioan aurkitu daitezke. Pertsonen elkarte primitibo hauetatik, egun Ekonomia Soziala bezala ezagutzen dena garatu da. Batez

ere, XVIII. mendean kooperatibismo modernoaren sorkuntzarekin; zeinek, garai hartako langileek jasaten zituzten bizi eta lan baldintza eska-sei erantzuteko sortutako ekimen kolektiboak bilduko dituen (Monzón, 2003; 2006). Ekonomia Soziala sindikatu eta langile-alderdiekin batera, langile mugimenduaren adierazpen esanguratsuenetarikoa bihurtuko zen (Laville eta Jané, 2009).

Gaur egun Ekonomia Soziala bezala ezagutzen da, literatura ekonomiko frantsesari zor dio bere garapen akademikoa neurri handi batean. León Walras izan zen gaur egun Ekonomia Soziala ezagutu izan den moduan ikertu zuen lehenetariko autoreetakoa. Izan ere, Walrasek kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak ugari diren esparru bati erreferentzia egin zion (Monzón, 2006); nahiz eta terminoaren sorkuntza Charles Dunoyer-i aitortzen zaion, 1830ean argitaratutako *Nouveau traité d'économie sociale* liburuagatik (Moulaert eta Ailenei, 2005).

XX. mendean, Ekonomia Soziala osatzen zuten antolakundeek euren definizioa osatzeari ekin zioten. Modu honetan, 1980an *Charte de l'économie sociale* publikatu zen; 1990ean Belgikako *Conseil Wallon de l'Économie sociale*-k ere bere definizioa proposatu zuen; eta 2002an *Europako Kooperatiba, Mutualitate, Elkarre eta Fundazioen Konferentzia Iraunkorra*-k orain arte egindako azkenengo mugapen kontzeptuala egin zuen Ekonomia Sozialaren printzipioen gutuna bultzatuz (Monzón, 2006; Pérez de Mendiguren *et al.*, 2009; Monzón eta Chaves, 2012). Definizio hauek guztiak, Ekonomia Sozialeko antolakundeak, mozkinen banaketa mugatua duten eta logika demokratiko batekin kudeatzen diren antolakunde pribatuak bezala kontsideratzen dituzte. Zehatzago, Ekonomia Sozialaren printzipioen gutunak printzipio hauen bitartez mugatzen ditu antolakunde hauek:

1. Pertsonen eta helburu sozialaren lehentasuna kapitalaren gainetik.
2. Borondatezko atxikimendu irekia.
3. Bazkideen kontrol demokratikoa (fundazioak izan ezik, bazkideak ez dituztelako).
4. Bazkideen interesen eta interes orokorraren bategitea.
5. Elkartasun eta erantzukizun printzipioen defentsa eta aplikazioa.
6. Kudeaketarako autonomia eta botere publikoekiko independentzia.
7. Mozkinen gehiengoa garapen iraunkorraren, bazkideen interesen eta interes orokorraren aldeko helburuetara bideratzea.

Esan bezala, definizio hauek, Ekonomia Sozialeko antolakundeek euren emandakoak dira. Hala ere, geroz eta presentzia handiagoa duten antolakunde hauen jarduera ekonomikoaren kontabilitate bateragarria aurrera

eramateko, Ekonomia Sozialaren definizio zientifiko-akademikoa sortzea beharrezkoa egin zen. Modu honetan, herrialde ezberdinetan bateragarriak izango ziren marko terminologiko eta kontzeptuala sortuz, informazio konparagarria lortzea ahalbidetu zuen. Horrenbestez, gaur egun erabiltzen den definizioa hurrengo litzateke:

*Formalki antolatutako enpresa pribatuen multzoa, erabaki-autonomia eta atxikitze-askatasuna dutenak, merkatuaren bidez bazkideen beharrak asetzeko sortuak, ondasunak eta zerbitzuak sortuz, ziurtatuz edo finantzatuz, non, bazkideen arteko mozkinen edo soberakinen balizko banaketa eta erabaki hartzeak ez daude zuzenean lotuta bazkide bakoitzak emandako kapitalarekin edo kotizazioekin. Hala ere, horietako bakoitzari boto bat dagokio, edo prozesu demokratikoen eta parte hartzaileen bidez erabakiak hartzen dira. Halaber, ekonomia sozialak familien alde merkatukoak ez diren zerbitzuak sortzen dituzten eta erabaki-autonomiaz eta atxikitze-askatasunez formalki antolatutako erakunde pribatuak bereganatzen ditu. Hauek soberakinik izanez gero, eragile ekonomikoek ezin dituzte sortu, finantzatu edo kontrolatu.*<sup>2</sup> (Monzón eta Chaves, 2012:23; egileen itzulpena)

Dena den, praktikan, Ekonomia Sozialaren mugapena egiteko ikuspegi juridikoa erabiltzen da. Hots, antolakundeen izaera juridikoari begiratzen zaio honen mugapena egiteko. Hurrengo taulan, Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiak<sup>3</sup> (OVES/GEEB) Ekonomia Soziala osatzen duten enpresa eta antolakundeak biltzen ditu, bere izaera juridikoaren arabera:

<sup>2</sup> Zita originala: «Conjunto de empresas privadas organizadas formalmente, con autonomía de decisión y libertad de adhesión, creadas para satisfacer las necesidades de sus socios a través del mercado, produciendo bienes y servicios, asegurando o financiando, y en las que la eventual distribución entre los socios de beneficios o excedentes así como la toma de decisiones no están ligadas directamente con el capital o cotizaciones aportados por cada socio, correspondiendo un voto a cada uno de ellos, o se llevan a cabo en todo caso mediante procesos democráticos y participativos de toma de decisiones. La economía social también agrupa a aquellas organizaciones privadas organizadas formalmente con autonomía de decisión y libertad de adhesión que producen servicios no de mercado a favor de las familias, cuyos excedentes, si los hubiera, no pueden apropiarse los agentes económicos que los crean, los controlan o los financian.»

<sup>3</sup> Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokia (OVES/GEEB): [www.oves-geeb.eus](http://www.oves-geeb.eus)

## 2. taula

Ekonomia Soziala osatzen duten antolakunde eta enpresak

Azpisektorea	Sektorea	Antolakunde / enpresaren izaera juridikoa
Enpresa azpisektorea edo merkatuko azpisektorea	Enpresa ez finantzarioak	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Kooperatibak</li> <li>— Lan-sozietateak</li> <li>— Enplegu-zentro bereziak</li> <li>— Laneratzeko enpresak</li> <li>— Arrantza kofradiak</li> <li>— Nekazaritzako eraldakuntza baltzuak</li> <li>— Merkatuko beste ekoizle pribatuak (elkartek, fundazioak eta sozieta-teak)</li> </ul>
	Enpresa finantzarioak	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Kreditu kooperatibak</li> <li>— Gizarte-aurreikuspeneko mutualita-teak</li> <li>— Gizarte-ekonomiako enpresen elka-rrekiko berme-sozietateak</li> </ul>
Merkatukoak ez diren ekoizleen azpisektorea	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Gizarte-ekintzako elkarteak</li> <li>— Gizarte-ekintzako fundazioak</li> <li>— Etxeen zerbitzura dauden beste irabazi-asmorik gabeko era-kunde batzuk</li> </ul>	

*Iturria.* [www.oves-geeb.eus](http://www.oves-geeb.eus)

### 3.1.2. EKONOMIA SOLIDARIOA

XX. mendeko azken laurdenean, ekonomiaren esfera pribatu zein publikoen merkantilizazioaren aurrean, Ekonomia Solidarioa sortzen da Latinoamerikan. Ekonomiaren ikuspegi soziologiko batetik abiatuta, agenda neoliberalari aurre egiteko eta gizarte emantzipazioa lortzeko Ekonomia Herritarraren ekimen ezberdinak biltzen dituen kontzeptua bezala. Europan, Ekonomia Sozialaren enborretik, baina aldi berean Ekonomia Sozial klasikoarekiko kritikoa izango den Ekonomia Sozial berria sortzen da. Lavelle-k (2015) dionez, Ekonomia Sozialaren barnean garatzen ari ziren ekimen berri horiek hiru ezberdintasun nagusi zituzten ordura arte Ekonomia Soziala osatzen zuten antolakundeekiko: antolakundeen gobernu eredu berriak barneratzen dituzte gobernantza eredu zabalagoetan oinarrituta, izaera eta diskurtso politikoagoa daukate, eta, ekonomiaren inguruko analisi osatuagoa aurrera eramaten dute. Pixkanaka, Ekonomia Sozial berriaren terminoa Ekonomia Solidarioarenatik ordezkatzuz joan zen, eta aldi

berean, Latinoamerikatik jorratzen ari ziren eztabaidekin bat egin du (Pérez de Mendiguren *et al.*, 2009).

Ekonomia Solidarioak oro har, egungo ekonomia kapitalistak garatzen dituen harremanak eraldatu nahi ditu. Izan ere, honek ez litzateke gai izango pertsonen beharrak asetzeko eta planetaren biziraupenerako beharrezkoak diren baldintza biofisikoak mantentzeko. Beraz, Ekonomia Solidarioak pertsonak, garapen komunitarioa eta hauek aurrera ateratzen dituzten jarduerak sistema ekonomikoaren erdigunean jarritz, bestelako ekonomia justuago, demokratikoago eta iraunkorrago eraikitzea du helburu. Horretarako, ekonomiaren ekoizpen, banakuntza, kontsumo eta finantzaketa harremanak justizian, lankidetzan, elkarrekikotasunean eta elkarlaguntzan oinarritzen ditu (Guridi *et al.*, 2011; Askunze, 2013).

Ekonomia Solidarioak ekonomia kapitalistaren balio eta lehentasunetatik aldentzen da. Eta beraz, ez du ekonomia helburu gisa ulertzen, baizik eta pertsonen eta komunitateen beharrak asetzeko eta hauen garapena lortzeko bitarteko bat bezala (Askunze, 2007). Horretarako, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak (REAS) aurkeztutako Ekonomia Solidarioaren gutunean biltzen diren printzipioak jarraitzen ditu (REAS, 2011):

1. Ekitate printzipioa: Ekitateak justizia txertatzen du berdintasunean; eta pertsona guztien duintasuna bermatzen du.
2. Lanaren printzipioa: Lana ekonomian eta komunitatean parte-hartzeko modua bezala ikusten da.
3. Ingurumen-iraunkortasunaren printzipioa: Jarduera ekonomiko oro naturarekin lotuta dago; eta haren eskubideak bermatzeko, jarduera ekonomikoaren azterna ekologikoa murriztu nahi da.
4. Lankidetzaren printzipioa: Lehiaren ordeztu, saretuta dauden (eta ez dauden) enpresen arteko lankidetzak sustatzen dira.
5. «Irabazi asmorik gabekoa» izatearen printzipioa: Ekonomia Solidarioak bultzatzen duen ekonomia-ereduak pertsonen garapen integrala, kolektiboa eta banakakoa du helburu. Lor litezkeen irabaziak ekimen ekonomikoaren iraunkortasuna hobetzeko, proiektu sozialak bultzatzeko, ekimen solidario berrietarako, garapenerako lankidetzak programetarako etab. bideratuko dira.
6. Inguruarekiko konpromisoaren printzipioa: Kokatuta dauden lurraldearen tokian tokiko garapen iraunkorra eta komunitarioa sustatzen dute.

### 3.1.3. EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA

Antzeman dezakegun moduan, Ekonomia Sozial eta Solidarioa (aurrerantzean ESS) Ekonomia Sozialaren eta Ekonomia Solidarioaren arteko

hurbilketa baten ondorioa da. ESSa geroz eta onarpen handiagoa lortzen ari duen kontzeptua da; alabaina oraindik horren egokitasunaren eta behar-raren inguruko eztabaida agerikoa da, batez ere maila akademikoan. Ez diogu, hala ere, artikulua honetan eztabaida honi helduko artikuluaen gai zentraletik gehiegi aldentzea izango litzatekeelako eta dagoeneko autore ezberdinek xehetasun handiz jorratu dutelako (ikus, Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015). Dena den, eta modu labur batean, nabarmentzen da Ekonomia Sozialaren ikuspuntu batzuetatik, «solidario» terminoa gehitzeak ez liokeela Ekonomia Sozialari ezer esanguratsurik erantsiko. Eta al-diz, Ekonomia Solidarioaren beste ikuspuntu batzuetatik, Ekonomia Sozialarekin bateratzean, Ekonomia Solidarioaren izaera eraldatzailea murrizten dela interpretatzen da.

Dena dela, azpimarratu nahi da hurbilketa zintzoa dela; bakoitzaren bereizitasunak onartzen dituen baina elkarren arteko onarpen terminoetan egin dena. Gainera, praktikan, hauen barnean jarduten duten eragileen arteko elkarlana geroz eta ageriago izaten ari da. Nahiz eta oraindik agenda politiko komun bat aurrera eramateko, elkarren arteko harremanetan gehiago sakontzea eskatzen duen (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2014; 2015).

### 3.2. *Ekonomia Sozial eta Solidarioa eta ingurumen-iraunkortasuna*

Artikulu honen mamirako, hurrengo atala ESSak ingurumen-iraunkortasunari ematen dion tratamenduan zentratuko da. Horretarako, Ekonomia Solidarioaren gutunaren hirugarren printzipioan arreta jarri izango da.

Ekonomia Solidarioaren gutunak, ekonomia eta ekoizpen jarduera oro naturarekin harremanetan dagoela aitortzen du; eta beraz, ekonomiaren eta naturaren arteko aliantza beharrezkoa bezala ikusten da. Horregatik, haren eskubideak bermatzen saiatzen dira, aurrera eramaten dituzten jarduera ekonomikoen aztarna ekologikoa murriztuz. Eta horretarako, ingurumen-iraunkortasunaren irizpidea ekintza guztietan barneratzea aldarrikatzen da. Zehazki, zazpi jokabide defendatzen dira dokumentuan (REAS, 2011:6):

- *Kontsumo arduratsua, jarrera koherente gisa, bi irizpide etiko nagusi hauekin: gizarte-ekitatea eta ingurumen-iraunkortasuna, hots, kontsumoko jardunbide eta ohiturek zer-nolako ondorio ekonomiko eta sozialak dituzten kontuan hartzea.*
- *Elikadura-burujabetza: lurralde bakoitzak bere nekazaritza eta abeltzaintzako politikak eta elikadurakoak definitzeko eskubidea izatea, eta bere barrietate eta arraza autoktonoak kontserbatzeko eskubidea.*

- *Espezieak eta lurraldeak kontserbatzea, eta, horretarako, gure planetaren oreka gordetzeko eta hurrengo belaunaldiekin elkartasuna adierazteko, natura-biodibertsitatea babestea.*
- *Desazkundera. Baliabideak modu arrazionalen erabiltzea: ura, energia, materialak... horretarako, etengabe hazteko beharrik sortzen ez duen ekonomia bat garatu behar da.*
- *ekoizpen garbia, hots, energia berriztagarriak erabiltzea, bioeraikuntza, agroekologia... kutsadura prebenitzeko beharra eta gure jarduera ekonomikoek ingurumenaren duten eragina (batez ere, CO<sub>2</sub> isurketek) neur-tzea.*
- *Ingurumenarekiko arduratsuak diren jardunbide eta ekimenak ezinbes-tean sustatu beharra (hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzea, turismo arduratsua, energia garbiak, eta abar), ingurumen-hezkuntza eta ikerkuntza sustatzea, eta natura aztertzea, harengandik ikasi ahal izateko.*
- *Biztanleria eta espazioaren arteko banaketa proportzional egokia egingo duen lurralde-antolakuntza garatzea, behar adinako nekazaritza eta abeltzaintza edukitzeko, saneamendu-zerbitzuak, kutsagarriak izango ez diren beharrezko garraioak, eta beste hainbat zerbitzu ahalbidetzeko. Masifikaziorik gabeko hirigintza-plangintza, eta bizigarritasuna, segurtasuna, kalitatea, auzokideen arteko elkarbizitza eta atse-denarekiko errespetua bermatuko dituen eraikuntza-eredua ezartzea. Hots, toki berean nekazaritza eta hiria modu orekatuan garatu ahal izatea.*

Maila akademikoan ere, Ekonomia Solidarioaren ikuspegitik idazten duten autore ugari azpimarratzen dute ingurumen-iraunkortasunaren garrantzia. Alabaina, gutxi dira horren inguruko teorizazioari beharrezko espazioa eskaintzen diotenak. Adibidez, Luis Razeto-k (1993) zeini Ekonomia Solidarioaren terminoaren sorkuntza aitortzen zaion, elkartasuna sistema ekonomikoaren erdigunean jartzen duen eredu batek jarduera ekonomiko jasagarriak aurrera eramango dituela dio. Izan ere, elkartasunean oinarritutako harremanek lana, ekoizpena, baliabide eta energiaren erabilerak, kontsumoa etab. zeharkatzen baldin badituzte, aipatutako jarduera horiek guztiak besteren gain eta hurrengo belaunaldien gain duten efektuaz arduratzeak eskatuko du. Dacheux eta Goujon-ek (2011) bestalde, Ekonomia Solidarioa bestelako garapen eredu baterako estrategia bezala planteatzen dute. Eta planteamendu horretan, garapen iraunkorra lortzeko Ekonomia Solidarioak duen potentzialtasuna aztertzen dute; batez ere azken honek parte-hartze demokratikorako duen gaitasunean arreta jarritz. Izan ere, merkatuaren eta estatuaren erregulazio formatik herritarren parte-hartzean oinarritutako erregulazio demokratiko baterako trantsizioa egi-terakoan, ekonomikoa denaren, soziala denaren eta ingurumenaren arteko

loturak berritzea ahalbidetuko luke. Horrez gain —jarraitzen dute auto-reek— Ekonomia Solidarioak artikulatzeko duen moduagatik, ekimen mikroekonomikoak proiektu global batekin konektatzea ahalbidetzen du; garapen iraunkorrerako bide berri bat birpentsatzeko aukera emanez.

#### 4. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren eta Ekonomia Ekologikoaren arteko hurbilketa

Orain arte egindako hurbilketa teorikoarekin, antzeman daitezke ESSaren eta EEaren artean adostasunak zein desadostasunak egon daitezkeela. Atal honetan, hauetan sakonduko da, ondoren bien arteko bateragarritasuna edo konbergentziarako puntuak arakatu ahal izateko.

##### 4.1. *Elkarren arteko kritika baterako elementuak*

Ohikoa da ESSa eta EE ekonomia heterodoxoen sailkapenetan aurkitzea. Izan ere, biek ekonomia neoklasikoarekiko irakurketa kritikoa egiten dute. Hemen aurkituko genuke lehenengo adostasuna. Izan ere, analisi neoklasikoetatik eratorrita, ekonomia zientzia formal, isolatu eta burujabea den ideia nagusi da ekonomialarion artean. Eta ekonomia horren oinarrian dagoen *homo economicus* deritzogun subjektu arrazional, berekoi, lehiakor eta utilitaristaren jokabidea da agintzen duena. Hots, ekonomia neoklasikoarentzat, ekonomia, bestelako zientzia sozial eta naturaletatik kanpo ulertu daiteke, eta, bertan diharduten subjektu guztiek erabilgarritasun handiena bilatzen dute jokabide indibidual eta berekoiaren arrazionaltasuna jarraituz.

Bi ideia hauek, esan bezala, gogotsu kritikatuak izan dira ESS eta EEtik. ESStik, ekonomia zientzia formala dela defendatzen duen ikuspuntuaren aurrean, ekonomia substantiboa dela proposatzen da. Aipatu dugun moduan, ekonomia neoklasikoak, ekonomia bestelako zientzia sozialetatik kanpo aztertzen du; eta beraz, eskola honetatik edaten duten ekonomialarientzako beste zientzia sozialek ez dute eraginik ekonomian. Beste modura esanda, ekonomia eta gizartea banatzen dituzte euren proposamenetan. ESStik idazten duten autore askok, Karl Polanyi (1944) antropologo eta ekonomialari hungariarraren analisia berreskuratzen dute ideia honi aurre egiteko. Izan ere, autore honen aburuz, ekonomia gizartean errotuta edo txertatuta<sup>4</sup> dagoen eraikuntza sozial bat da. Gizarte bakoitzeko politikari,

---

<sup>4</sup> Polanyik (1944), gerora autore ezberdinek ere erabiliko duten *embeddedness* kontzeptua erabiltzen du ekonomia gizarte egituretan txertatuta dagoela adierazteko.



harreman sozialei, kulturari, erlijioari etab. lotuta dagoena. Horrenbestez, ekonomia ezin da zientzia formal eta isolatua bezala kontsideratu, egitura sozial ezberdinetara lotuta dagoelako; eta beraz, ekonomia neoklasikoaren konstrukturik esanguratsuenetarikoa, merkatu autorregulatua alegia, ezin da existitu. Azken finean, egitura sozial edo instituzio sozial horiek (formalak zein informalak) izango direlako merkatua erregulatuko dutenak. Ideia honetatik ondorioztatu dezakegu ekonomia, beste multzo baten azpimultzo bat bezala kontsideratzen dela; gizartea, alegia. Eta beraz, esan bezala, ekonomia ezin da esfera isolatu bat bezala aztertu, beti egongo baita gizarte egitura eta harremanen menpe.

Hala ere, egia da XIX. mendetik kapitalismo industrialaren hedapenarekin, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arteko lotura lausotu egin dela (Laville, 2009). Izan ere, ekonomia kapitalistak, ideologia produktibistari jarraika merkantilizazioaren bidea jarraitu du. Dena merkantzia bezala ikusten du. Hala ere, Polanyik (1994) ekonomiaren txertatze falta hori zergatik ezinezkoa den azaltzen du. Autore hungariarrak dionez, badira merkatu autorregulatuaren logikan barneratu ezin diren hiru merkantzia gutxienez. Hauek, lana, lurra eta dirua litzateke. «Fikziozko» merkantzia hauek ez dituzte bestelako merkantziek jarraitzen dituzten jokabideak; euren ingurune instituzionaletatik askatu ezin diren heinean. Hauek ez baitira merkaturan saldu eta erosteko sortuak izan. Dirua, jendarte eraikuntza bat da eta estatuak eta bestelako egitura finantzarioek bere eskaintza kontrolatzen dute. Lana, pertsonen duten berezko ezaugarri bat da, eta beraz, auto-erregulatzen den merkatu baten menpe jartzeak, pertsonen, eta hedaturaz gizartearen suntsiketa dakar; pertsonen eta giza duintasunaren guztizko merkantilizazioa sortuko lukeelako. Halaber, lurra naturaren azpitalde bat osatzen du, eta lana bezala, merkatu autorregulatu baten menpe jartzeak naturaren suntsiketa eragingo luke. Horregatik, ekonomia *laissez-faire*-rantz jotzen duenean, fikziozko merkantzia hauek, merkantzia errealak balira bezala kontsideratzeko arriskua dago. Orduan, gizarteek erresistentzia erakusten dute<sup>5</sup>. Fikziozko merkantzia hauen berezitasunaren adibide gisa, estatuak hauen gainean egiten duten tratamendua litzateke. Hala nola, diruaren eskaintza eta kredituaren kontrolaren bitartez; edo, lan merkaturaren gaineko kontrolaren bitartez; edo, lur sailen gaineko araudiaren bitartez. Hala, ospe handia lortu duen *The Great Transformation* liburuaren pasarte honetan azaltzen da hobeto:

<sup>5</sup> Polanyik (1944), mugimendu bikoitzaren teoria garatzen du, analisi antropologiko baten ostean. Bere aburuz, merkatuek *laissez-faire*-rantz jotzen dutenean, gizartearen kontramugimendu babestzaile bat sortzen da. Aldiz, mugimendu hauek merkatua ahuldu dezaketenez, kapitalaren ofentsiba berri bat abian jartzen da, kapitala gizarte-hertsaduratik askatzeko.

*Berez erregulatzen den merkatu baten ideiak erabateko utopia osatzen zuen. Horrelako instituzio bat ezin izan zen inoiz existitu gizartearen giza substantzia eta substantzia naturala deuseztatu gabe; gizakia fisikoki suntsituko zuen eta bere ingurune naturala betazal bihurtuko zuen. Halabeharrez, gizarteak babes-probidentziak hartu zituen, baina neurri horietako edozeinek merkatu autorregulatua kaltetzen zuen, industria-bizitza desantolatzen zuen eta, hala, gizartea beste era batera arriskuan jartzen zuen.*<sup>6</sup> (Polanyi, 1944:65; egileen itzulpena)

Antzeman daiteke, EEak errez bereganatu dezakeela argudiaketa hau. Izan ere, EEa ez da naturaren merkantilizazioaren edo honen inguruko balorazio monetarioaren aldekoa. EEak sistema naturalen kontserbazioaren aldekoa da, eta adierazle ekonomikoak honi azpiratzen ditu. Ingurumen-iraunkortasuna ez baita izango sistema ekonomikoaren efizientziaren ondorio bat, baizik eta egungo eta hurrengo belaunaldien artean emandako ekitatean oinarritutako harremanen emaitza (Naredo, 1996).

ESSak ekonomia neoklasikoaren indibidualismo metodologikoari ere kritika egiten dio. Ekonomia neoklasikoak, banako baten jokabideak gizarte osora estrapolatzen ditu, eta portaera indibidualen konplexutasunaren aurrean, aurretik aipatutako arrazionaltasun utilitarista agintzen du. Hots, gehiago izateak gutxiago izatea baino hobeagoa dela. ESSak suposizio edo premisa horiek zalantzan jartzen ditu, eta murriztaileak izateagatik kritikatzeko ditu. Lavillek (2009) dionez, ESStik ekonomia neoklasikoaren erredukzionismoa kritikatzeko da, zeinean jarduera ekonomikoa soilik azaldu daitekeen interes materiala baldin badago. Izan ere, jarduera ekonomikoetan norberaren interesetik haratago doazen beste motibazio, zentraltasun eta asmo batzuk ere badaudela defendatzen da ESStik (Jubeto eta Larrañaga, 2014).

Kritika honetatik garatzen da ESSak aldarrikatzen duen ekonomiaren pluraltasuna. Ekonomia neoklasikoak bere premisa irreali jarraiki, merkaturua integrazio ekonomikorako eredu bakarra kontsideratzen du. Hala ere, Polanyiaren (1944) ikerketa erakusten duenez, merkatuak ez dira kapitalismoaren sorkuntzara arte integrazio ekonomikorako printzipio nagusiak izango. Gizarte aurre-kapitalistetan, birbanaketa, elkarrekikotasuna eta biziraupenerako etxeko kudeaketa nagusi izango baitira. Hortaz, bai, integra-

<sup>6</sup> Zita originala: «la idea de un mercado autorregulado implicaba una utopía absoluta. Semejante institución no podría haber existido en ninguna época sin aniquilar la sustancia humana y natural de la sociedad; habría destruido físicamente al hombre y transformado su ambiente natural en páramo. Inevitablemente, la sociedad adoptó providencias para protegerse, pero cualquiera de esas medidas dañaba el mercado autorregulado, desorganizaba la vida industrial y, así, ponía en peligro a la sociedad en otro sentido.»

zioa merkatuan gertatzen da, baina baita ere merkatutik kanpo edo/eta diruzkoa ez den ekonomiaren<sup>7</sup> bitartez.

EEak bere aldetik ere kritika garrantzitsua egiten dio ekonomia neoklasikoari. Naredo (2002), xviii. mendeko ekonomialari fisiokraten pentsamendura bueltatzen da ekonomia eta naturaren arteko lotura, eta ondoren etorriko zen haustura aztertzeke. Izan ere, garai hartako ekonomialariak izan ziren ekoizpenaren, kontsumoaren eta hazkunde ekonomikoaren inguruko ardura jorratu zuten lehenak (Naredo, 2006); azken honek izango zelakoan garapena eramango zuena. Alabaina, autore fisiokratek argi zuten, nekazaritzan oinarritutako ekonomia baten hazkundera lurraren menpe zegoela. Eta beraz, hazkunde ekonomikoa lurra sortzen zuen aberastasun naturalaren menpe zegoela. Horrenbestez, hazkunde ekonomikoa eta hazkunde naturalaren (edo lurraren berriztagarritasun ahalmenaren) arteko lotura aintzat hartzen zuten euren analisisetan. Hazkundera soilik zentzua izango zuen, aurretik esan den moduan, hazkunde hori ahalbidetzen zuen naturaren erreproduktzioarako gaitasuna errespetatzen baldin bazen (Naredo, 2002; Herrero, 2013). Eta ondorioz, jarduera ekonomiko orok naturaren zikloak eta orekak errespetatu behar zituen haren dohainak ustiatzen jarraitzeke.

Ekonomia klasikoarekin, eta, batez ere, ondoren garatuko zen ekonomia neoklasikorekin, ekonomiaren eta mundu fisikoaren arteko banaketa ageriagoa egingo da. Gorago aipatutako ekonomiaren erreduktionismoa kritikatu da EEtik ere. Soilik jarduera ekonomikorako baliagarriak diren ondasun balioztagarri, eskuragarri eta ekoizgarriak aintzat hartuko baitira analisi ekonomikoan (Naredo, 1994; Herrero, 2013), erabilera balio handia izan dezaketean, baina merkatutik kanpo dauden ondasunak baztertuz. Hots, analisi ekonomiko hauek, ingurune naturalarekiko urrundu ziren; orain, ekonomia gisa, soilik balio erantsia sortzen zuen ekoizpen prozesuak kontsideratzen zirelako, eta ez zen arreta jartzten, adibidez, naturaren birsorkuntza gaitasunean. Modu honetan, barrik balio ekonomikoa handitzen duten prozesuak kontsideratuko dira ekoizpen gisa. Hortaz, berdin dio zer, nola, zeinentzat eta non ekoizten den monetarioki neurtu ahal bada. Adibide gisa, armamentua ekoizteak aberastasuna bezala kontsideratuko den bitartean, naturaren kontserbazioa ez da analisi ekonomikoetan agertuko (Herrero, 2013). Honetatik gehiegi urrundu gabe, ekoizpen prozesuetatik sortzen diren, baina merkatuko balioan azalarazten ez diren ingurumenarentzako efektu negatiboak, hots, kanpo eragin negatiboak, merkatuko akatsak bezala kontsi-

---

<sup>7</sup> Merkatutik kanpo etxeko eta zaintza lan ez ordainduak, moneta sozialak, truke-sareak, denbora bankuak, elkarrekikotasunean oinarritutako trukea, autoekoizpena etab. ematen dira.

deratzen ditu ekonomia neoklasikoak. Hau da, erregaien erreketara behar duen ekoizpen prozesu batek, atmosferan dagoen karbono dioxidoaren kontzentrazioa handitzen badu, prezioetan dagoen akats bati leporatzen dio errua (Martínez-Alier, 2008a).

Gaur egun, ekonomikoa kontsideratzen dena kritikatzeko dute ESSak zein EEak. Ekonomia esfera isolatu eta burujabea den ideiarekin kontra joz. Baina, horrez gain, 80ko hamarkadatik indartu den ideologia neoliberalak zein sistema kapitalista bera ere kritikatzeko dituzte. EEren ikuspegitik, kapitalismoak dakarren arrisku larri batez ohartarazten gaituzte. Ekonomia esfera isolatu bat bezala kontsideratzen bada, eta esan den moduan, gizarte egituretatik eta naturatik askatzen duten analisi ekonomikoak burutzen baditugu, soilik horrela, hazkunde ekonomiko mugagabea ahal izango da. Horrenbestez, kapitalismoa eskola neoklasikoan laguntzen da berez behar duen hazkunde tasa mantentzea ahalbideratuko dion analisi ekonomikoa eskaintzen diolako. Alabaina, ekonomia ez da esfera isolatu bat. Lehenago, esanenez, ekonomia gizartearen azpimultzo bat da, eta gizartearen aldi berean, naturaren azpimultzo bat; naturarik gabe ez baitago gizarterik, eta gizarterik gabe ez baitago ekonomiarik. Horrenbestez, multzo mugatu baten —biosfera— azpimultzo bat —ekonomia— ezin izango da inoiz multzo mugagabea izan; behintzat, oinarri materiala duen hazkunde bada. Beste modura esanda hazkunde mugagabea ezinezkoa da, naturaren muga biofisikoekin talka egin gabe (Pérez *et al.*, 2012). Hori dela eta, ekonomia ez da esfera isolatu bat, ezta bakarrik enpresez, familiez, ondasunen merkatuez eta ekoizpen faktoreen merkatuez osatutako sistema itxi bat. Aldiz, lehenago esanenez, ekonomia sistema ireki bat osatzen du naturarekin —eta gizartearekin— norabide batean materialak eta energia —eta lan eskua— trukatzeko dituelako eta beste norabidean hondakinak naturara bueltatzeko direlako; eta hauek termodinamikaren legeak —eta gizarte instituzioak— jarraitzen dituzte (Naredo, 2006).

ESSren ikuspegitik, kapitalismoaren, eta hedaturaz enpresa kapitalistaren arrazionaltasuna, baliabideak kapitalaren erreproduktzioaren zerbitzuan jartzea da; ondasun bat baliabide gisa kontsideratuko da baldin eta ekoizpenerako baliagarria den, eta horrela bada, merkatuan saldu edo erosi ahal izango da. Enpresa kapitalista beraz, kapitalaren zentraltasunaren menpe eta honen erreproduktzioaren zerbitzura eraikitzen den enpresa da; mozkinak maximizatzea helburu duena, lehian jarraitzea bermatzeko eta metaketa ahalbideratzeko. Modu honetan, enpresa kapitalistetan, soldatapeko lanaren bitartez, harreman sozialak ekoizpen prozesuaren objektu bilakatzen dira. Aldiz, ESSko enpresetan, kapitala helburu izateko, bizitza eta honen erreproduktzioa helburu duen beste arrazionaltasun bat planteatzen da. Langileak, kapitalistak antolatzen dituen eta salerosi daitezkeen ekoizpenerako baliagarria den lan indarraren hornitzaileak iza-

tetik, ekoizpen prozesuan subjektu aktiboak izatera igarotzen dira (Coriggio, 2009).

Honekin lotuta, enpresen jabegoari begiratu behar diegu. ESSko enpresak jabego kolektibodunak dira, non «bazkide bat, bozka bat» irizpide demokratikoa jarraitzen den. Eta bertan diharduten eragileen artean, bi kategoria aurkitu ditzakegu: Jabegoa eta onuradunak. Jabegoa, erabakiak hartzeko boterea du, beti ere aipatutako irizpide demokratikoari jarraika. Onuradunek, aurrera eramandako jardueraren onuradunak dira hain zuzen ere. Sailkapen honetatik, bi antolakunde mota eratortzen dira. Lehena, non jabegoa eta talde onuradunak ez diren pertsona berdina, «interes orokorreko» litzateke. Bigarrenean aldiz, azaldutako bi kategoriek bat egiten dute; eta beraz, enpresa kontrolatzen dutenak eta jardueraren onurak jasotzen dutenak pertsona talde berdina da. Hauek «interes mutualeko» enpresak lirateke (Gui, 1991). Enpresa kapitalista batean, jabegoa inbertitzaile kapitalistez osatuta dago, eta beraz enpresa horren helburu-funtzioa, lehen azaldu den moduan, mozkinak maximizatzea bihurtzen da. Izan ere, inbertitzaile kapitalistentzat, enpresa batek balioa sortuko du baldin eta egindako inbertsioetatik lortutako plusbalioak errentagarritasun handiena lortzen badu. Aldiz, ESSko enpresetan, jabegoa edo talde onuraduna ez daude inbertitzaile kapitalistaz osatuta. Eta beraz, ESSko enpresek sortzen duten balioa bazkideen, etxeen, familien edo komunitateen beharrak asetzekoan lortzen da (Monzón, 2006). Honi ere, EEtik datorren ekarpen batekin heldu diezaiokegu. Izan ere, enpresa kapitalista baten helburu-funtzioa mozkinak maximizatzerara bideratzen bada, eraginkortasun handiagoz jokatzera bultzatuta ikusiko da enpresa hori. Termino ekologikoetan, eko-eraginkortasuna bilatzera bultzatuta ikusiko da. Alabaina, posiblea litzateke, material eta energia gastu txikiagoa kostatzen zaion ekoizpen prozesu batean, baliabide gehiago erabiltzea, gehiago ekoizteko eta mozkin tasa handitzeko helburuarekin (Martínez-Alier, 2008a).

ESSa osatzen duten enpresa, entitate eta bestelako antolakundeak narbariki politikoa den diskurtsoa aurrera eramaten dute. Batez ere, Ekonomia Herritarretik eta Ekonomia Sozial Berriko alderdietatik. Adibidez, Razetok (1999) desparekotasuna eta menpekotasunean oinarritutako harremanak sortzen dituen garapen eredu kapitalista-neoliberalaren aurrean, emantzipazio sozialerako alternatiba gisa planteatzen du. Edo, Evers eta Lavillek (2004) dioten moduan, Europako hegoaldeko eta hizkera frankofonoetako herrialdeetan, ESSa ikuspegi ezkertiarrekin lotzen da, zeintzuk politika ekonomiko neoliberalarekiko erradikalki kritikoa diren. EEaren ikuspegi batzuetatik ere diskurtso politiko esanguratsua aurrera eramaten da. Alde batetik, sostengaezina den hazkunde ekonomikoari suposatzen zaizkion onurak zalantzan jartzen dira. Izan ere, hazkunde ekonomikoaren eta aberastasunaren banaketa edo kohesio sozia-

laren arteko erlazioa ez da izan (zuzenki) proportzionala (Taibo, 2010). Eta beraz, neoliberalismoaren mantra den *trickle-down effect*-a ukatzen da. Bestetik, autore ezberdinek diotenez (Taibo, 2010; Herrero, 2013) gaur egun indarrean dauden kontsumo ereduak aldatzea beharrezkoa izango da. Izan ere, ohartarazten dutenez, gaur egungo kontsumo maila ahalbidetzen diguten material ezberdinen erauzketa gailurra dagoeneko gainditu da; eta ondorioz, material hauen erauzketa gaitasuna gainbeheran doa, nahiz eta trantsizio ekologiko baterako beharrezkoak izango diren materialak izan daitezkeen.

EEak, beraz, kapitalismo neoliberalaren gabeziak salatzen ditu, ez baita gai arazo sozialak —desparekotasunak, txirotasuna etab.— erantzuteko, baina aldi berean naturaren narriadura sortzen du aurrera eramaten dituen ekimen neurrigabeen bitartez. Hortaz, argi dago naturaren narriadura, batzuen epe motzerako mozkinak bihurtzen dela adeitasun ezarekin. Gizakiaren eta ingurumenaren arteko bizikidetzaren orekatua eta iraunkorra izateko, gaur egungo sistema ekonomikoak planteatzen dituen aktibitate ekonomikoetan indibidualismoa, irabaziak eskuratzeko nahia, solidarioak ez diren aktibitateak, oldarkortasuna eta, orokorrean, indibidualismoaren desirak kolektiboen desiren gainetik aktibitateak eraldatu behar dira. Horregatik, EE etika parte-hartzailean, demokrazian eta solidarioa izatean oinarrituta egon behar da. Gizateria osorako balizko helburuetan bideratuta egon behar da, lehendabizikoa bizitzaren zaintza izanda, eta helburu honetatik beste batzuk deribatuz; hala nola, gizadiaren ezinbesteko beharrak asetzea, oreka ekologikoaren babesa, etab. Hau soilik izango da posible baldin eta zenbait baldintza ekonomiko eta sozialak betetzen badira (Bermejo, 1994). Eta baldintza hauek, ESSak planteatzen duen eredu sozio-ekonomikoarekin bat egiten dute guztiz.

Ondorioztatu daiteke, gaur egungo menpekotasun ekonomiko eta sozialerako sinergia-harremanak sortzen dituzten pentsamendu eskola neoklasikoa, sistema ekonomiko kapitalista eta ideologia neoliberalaren hegemonia gainditzeko beste eredu bat proposatu nahi dutela ESSak zein EEak. ESSak alternatiba konkrituagoen bitartez eta EEak ingurumen-iraunkortasuna kontuan hartzen duen beste ikuspegi bat bultzatuz. Hala ere, ESSa ez da beste eredu ekonomiko baterako eraldaketa egiteko paper hori duen eredu bakarra. Estatuaren eta bestelako ekonomia eraldatzaileen garrantzia ere azpimarratu behar da. Are gehiago, ESSak ez du eredu itxi bat osatzen; esperientzia, lanabesa eta ekarpen teoriko berrien bitartez eraikitzen jarraituko duen eredu da. Hori baita bere ekarpen eraldatzaile nagusia, aurrera egitea ahalbidetzen duen marko irekia osatzen duela, alegia. Azken finean, marko irekiaren izaera horrek laguntzen du ESSaren baitan EEtik datozen aldarrikapen eta ekarpenak barneratzeko.

#### 4.2. *Ekonomia Sozial eta Solidarioaren eta Ekonomia Ekologikoaren arteko desadostasunak*

Bi teoriak kapitalismoaren iraunkortasun eza duen metaketa sistema kritikatzeko dute. EEak adibidez, munduan ezarrita dagoen baliabideen ipar-hegemonia eta hazkunde ekonomiko neurrigabearen logika azaleratzen du. Sistema kapitalistak bizirauteko beharrezkoak dituen baliabide naturalen mugak finkatuz. Hau da, kapitalismoak naturarekin duen bizikidetzaren honekin jarraituz gero, munduko baliabide naturalen erreserbekin bukatuko duela. Ez baitago sistema ekonomiko iraunkorrik ez duena natura zaintzeko irizpide bezala bereganatzen. Aldiz, ESSak kapitalismoak sortzen dituen kontraesan ezberdinekiko aldaketa sozioekonomikoak proposatzen ditu, artikulu honetan xehetasunez idatzitako printzipioak oinarritzat hartuz. Horrenbestez, ESSak iraunkortasunaz gain, gizartearen eraldaketan ere eragina izan nahi du, modu honetan, ingurumen-iraunkortasunari aipatutako beste printzipioei emandako garrantzia berdina ematen dio. Izan ere, ESSak, garapen alternatibo bat bilatzen du, hots, bestelako antolaketa ekonomiko eta soziala, non ekoizpena, kontsumoa, finantzaketa eta banaketaren helburua kapitalaren metaketa ez den, baizik eta bizitzeko oinarritzko beharren asetzea. Bizitzaren erreproduzio hedatu eta duina bermatuz.

Sakondu diren bi korrante ekonomiko hauetan, gizateriaren bizitza erdigunean jartzen da, hau da, bizitza erreproduzitzeko beharrezkoak diren elementuak defendatzen dira. Alde batetik, EEak gizakiaren iraunkortasuna, naturak eskaintzen dituen zerbitzuen iraunkortasunarekin hertsiki lotzen ditu; hots, kapitalismoak eragiten duen baliabideen galerak eta banaketa desorekatua salatzen ditu. Beste aldetik, ESSak gizakiaren iraunkortasuna defendatzeko, kapitalismoak eta honek dakarren ohitura indibidualistak eraldatzea du helburu. Honekin batera, ingurumenaren zainketaren garrantzia azaltzen dute, baina, esan bezala, Ekonomia Solidarioaren kasuan adibidez, xehatzen dituen beste bost printzipioen maila berdina konpartitu behar du.

Ildo horretatik jarraituz, ESSak eta EEak kapitalismoak sortu dituen iraunkortasun galerak aztertzen dituzte, gizakiaren iraunkortasunaren alde oinarritzen diren printzipioak garatuz. Baina, EEak zientzia naturalen ikerketak eta arazoak eskaintzen ditu, gizartearen sistema sozioekonomiko zehatza definitu gabe utziz. Aldiz, ESSak gizarte zientzietatik bere teoriaren indar gehiena hartzen du, bere printzipioetan oinarritzen diren sistema sozioekonomikoa eskainiz. Dena den, bi teoriak proposatzen dituzten printzipioak osagarriak izan daitezke, beti ere, ingurumenaren iraunkortasuna lehentasunezko printzipiotzat onartzen bada.

Praktikan, kooperatibismo klasikoak adibidez, ez du haustura epistemologikorik sortzen indarrean dauden teoria ekonomikoekiko, neurri ba-

tean proiektuaren barneko partaideak baitira. Hots, kooperatiba tradizio-nalek, zerbitzu naturalak mugagabeak diren eta ingurumeneko zerbitzuak narriadurarik ez duten ikuspegi ortodoxoa jarraitzen dute (Azkarraga eta Altuna, 2012). Hala, Ekonomia Sozialaren barruan barneratu daitezkeen kooperatiba tradizionalen iraunkortasun ikuspegia iraunkortasun ahula-ren eredu da, izan ere, EEak aldarrikatzen duen iraunkortasun sendoa ezar-tzeko termodinamikaren legeak zehatz-mehatz jarraitu beharko lirateke. Hori dela eta, ESSak ingurumen-iraunkortasunaren inguruan proposatzen dituen printzipioak gizartean eta ekonomian aplikatzerakoan kontraesanak sortzen zaizkio. Hala nola, iraunkortasun sendoa bilatu nahian, enpresa bati egunerokotasunak eskatzen dizkion errentagarritasun maila eta jar-duera bera aurrera eramateko beharrak direla eta, iraunkortasun ahularen alde egitera behartzen dio.

#### 4.3. *Ekonomia Sozial eta Solidarioaren eta Ekonomia Ekologikoaren arteko bateragarritasuna praxian*

Azaldu denez, ekonomia gaur egun ezagutzen den moduan, merkatue-tan jartzen du arreta guztia. Horiek baitira ikerketa objektu nagusienak. Hala ere, ESStik eta EEtik, eta baita ere ekonomiaren beste ikuspegi hete-rodexoetatik, estutasun analitiko hau kritikatu izan da. ESSak adibidez, merkatutik kanpo eman diren eta ematen diren esparru ekonomikoak az-pimarratzen ditu. EEak bere aldetik, ekonomia eta prozesu naturalen arteko harremana azaltzen saiatzen da. Horrenbestez, biak ohiko ekonomiak ekonomikoa bezala kontsideratzen duen hori gainditzen saiatzen dira, eko-nomiaren gainean dauden, eta beraz, ekonomian eragiten duten beste siste-mak (gizartea eta natura) analisisan barneratuz. Hortaz, azaldu den moduan, ohiko ekonomiarekiko kritikoak diren bi ikuspegi dira. Hau da, ohiko eko-nomiarekiko bestelako planteamendu epistemologikoa planteatzen dutenak, non egun hegemonikoak diren oinarri ekonomikoak zalantzan jartzen di-tuzten, eta/edo ekonomia egiteko bestelako formak erabiltzen duten. EEa ikuspegi teorikoago batetik, eta ESSa aldiz, praxitik abiatutako ekimenen bitartez, hurrenez hurren (Martínez eta Álvarez, 2008). Atal honen asmoa beraz, ingurumen-iraunkortasunaren inguruko adierazpen teoriko eta dis-kurtsiboak praxian nola barneratu daitezkeen aztertzea da.

##### 4.3.1. HAZKUNDE EKONOMIKOA, ABERASTASUNAREN BANAKETA ETA SEKTORE EKONOMIKO BERRIAK

EEaren ideia zentraletakoa da hazkunde ekonomikoa ezin dela muga-gabea izan. Alabaina, gaur egun, hazkunde ekonomikoa arazo guztientzako



konponbidea denaren ideia indarrean jarraitzen du. Eta beraz, hazkunderen mugei buruz ohartarazten duten ikuspegiak isilarazten dira (Naredo, 2002). Kapitalismoaren biziraupenerako beharrezkoa da hazkunde tasa mantentzea. Izan ere, azaldu den moduan, analisi ortodoxoetarako kapitalak balioa sortzen du honen erreprodukzioa ematen denean, eta ondorioz metaketa ahalbidetzen duenean; ondorioz, ahalik eta errentagarritasun handiena bilatuko du ekoizpen prozesu bakoitzean. Horrenbestez, maila makro batean, hazkunde mugagabea dena, maila mikroan, enpresen mozkinen maximizatzea da. Hortaz, arazo ekologikoari alternatibak ematea bilatzen bada, kapitalaren erreprodukzioa, eta beraz, mozkinen maximizazioa, bilatzen duen enpresa eredu batetik, pertsonak, eta hauek bizitzeko behar dituzten baldintzak erdigunean jartzen dituen eredu batean arreta jarri beharko da.

Hala ere, hau ez da zerbait automatikoa. Kooperatibismo tradizionaletik, ESSaren ekarpen esanguratsuenetarikoa, enpresa kapitalistaren logikaren iraulpena izan da, gutxienez hiru esparruetan: Antolakundeen jabegoa, antolakundeen erabaki-hartze prozesuetan eta mozkinen banaketan. Kasu honetan, enpresaren hiru esparru hauek bazkideen eskuetan gelditzen dira. Alabaina, gorago esan denez, ekoizpen baliabideen sozializazioak ez du berez agenda ekologiko baten aplikazioa bermatzen; batez ere kooperatibismo tradizionalaren kasuan, non aberastasunaren banaketa eraginkorra lortzeak hazkunde mugagabearen ideia legitimatzen zuen (Azkarraga eta Altuna, 2012). Dena den, enpresaren funtzionamenduaren printzipio hauek iraultzean, eta, ESSaren ikuspegi berrien diskurtso politikoagoarekin, ingurumen-iraunkortasuna praktika hauetan barneratzea errazagoa izan daitekeela; batetik, hartu beharreko norabidea bazkideen esku gelditzen delako, eta bestetik, kontsumoan oinarritutako ongizatearen ideia birplanteatzen dutelako.

Esan bezala, ESSak ingurumen-iraunkortasunaren auziari erantzuteko erraztasuna izan dezake antolakundeen norabidearen gaineko erabakiak bazkideek eurek hartzen dituzten heinean. Hots, demokrazia ekonomikoan sakontzeko egiten duen lanagatik. EErentzako, gizarte batek mekanismo ekonomikoak bere gain hartuz posible izango du proposatutako helburuak aurrera eramatea, mekanismo horiek kontrolpean edukiz gero, ekonomia nahi duen norabidera bideratuko du. Halaber, egoera horrek beharrezkoak diren aldaketak egitea ere ahalbidetzen du, ziurgabetasun eta arrisku egoeran (Bermejo, 1994). Hortaz, hemen, azaldu denagatik, ESS eta EEren arteko elkarlana agerikoa izan behar du; EEak lege fisiko eta naturalak bermatzen dituen norabidea adierazten duen bitartean, ESSak ildo horretako erabaki ekonomikoak demokratikoki hartzeko lanabesak eskaini ditzakeelako.

Baina ez hori bakarrik, gaur egungo testuinguru ekonomiko eta sozialak erronka berriak planteatzen ditu ESSarentzako. 70eko hamarkadatik, krisi fordistarekin, estatuak erregulazio ekonomikorako zuten papera al-

datzen da; agenda neoliberalaren aplikazioarekin, pribatizazio, malgutasun ekonomiko eta merkatuen desarauketaren eraginez, gizarteetan behar sozial berriak sortzen dira; ingurumen-iraunkortasunaren inguruko ardura piztu da eta enpresa formula fosilista zaharrak, non Ekonomia Sozial tradizionalak eroso jarduten zuen, geroz eta gehiago baztertzen dira; etab. Tomás-ek (1997) dionez, eraldaketa sozio-ekonomiko hauek Ekonomia Sozial tradizionalan aldaketa garrantzitsua suposatu zuen gutxienez hiru esparruetan: i) Sektore ekonomiko berrietan jardutea, behar eta aldarrikapen sozial hauek estaltzeko, eta formula ez hierarkikoen bitartez. ii) Ekonomiaren tertziarizaziorako, malgutasunerako eta azpikontrataziorako joerak, enpresa txikiagoak ugaritu ditu; hauek inbertsiorako behar handirik ez dituztenak. iii) Zerbitzu publikoen esternalizazioak ESSarentzako aukera berriak ireki ditu. Behar sozial berriak asetzeko sektore pribatu kapitalistatik eta publikotik kanpo alternatibak bilatzera behartu baitu.

Ildo honetan, 70 eta 80ko hamarkadetan emandako eraldaketa sozio-ekonomiko hauen eraginez sortzen ari ziren enplegu berriei begiratuta, Laville eta Nyssens-ek (2000) deritzoten *proximity services* edo hurbiltasuneko zerbitzuak<sup>8</sup> ugaritu dira. Izan ere, autore hauentzako, garatutako ekonomiek geroz eta garrantzia handiagoa ematen diete pertsonetan oinarritutako zerbitzuei, eta, ESSaren inguruko interesa berpiztu den une honetan, haren aukerak aldarrikatzen dituzte zerbitzu hauek eskaintzeko. Autore hauentzat, eraldaketa demografiko, sozial eta kulturalen eraginez sortutako beharrei erantzuna ematen dieten sektore ekonomikoak osatzen dituzte. Eta hauek definitzeko hurrengo mugapena proposatzen dute: batetik, hurbiltasun geografiko eta zerbitzu emailearen eta hartzailearen arteko harremanen gertutasuna behar duten zerbitzuak direla. Eta bestetik, ondasun (kuasi)kolektiboak direla. Sektore hauek, autoreen iritziz, desneplegua eta prekaritatearen aurrean aukera interesgarria izan daitezke ESSarentzako. Gainera, ingurumen-iraunkortasun ikuspegi batetik, garapen ekonomikoa eta langabezia murriztea ahalbidetzen duten sektoreak izan daitezke, materialen ustiapenean oinarrituta egon gabe.

Zehazki, Laville eta Nyssens-ek (2000:69) Europar Komisioak (1995) identifikatutako lau sektoreetan kokatzen dituzte zerbitzu hauek:

- Eguneroko zerbitzuak.
- Bizi kalitatea hobetzeko zerbitzuak.
- Aisialdi kulturala.
- Ingurumen zerbitzuak.

<sup>8</sup> Literatura Frantsesean: *services de proximité*. Berez, zerbitzu hauei erreferentzia egiteko adierazpen ingeleza *household and community services* litzateke; hala ere Laville eta Nyssens (2000) itzulpen literala aukeratu dute terminoaren espezifiktasuna mantentzeko.

Ondorioztatzen da ESSa, baina honen barnean batez ere Ekonomia Solidarioa, zeresan handia izan dezakeela zerbitzu hauek eskaintzeko. Izan ere, Laville eta Nyssens-ek (2000) esaten duten moduan, hurbiltasuneko zerbitzuen eta ESSaren garapenean hauen arteko interkonexio ugari aurkitzen dira. Hala ere, materialen ustiapen urria duten sektore ekonomiko hauetan kokatzeaz gain, EEtik datozen irakaspenak aplikatzea beharrezkoa da. Hots, ingurumen-iraunkortasunean arduratuta dauden antolakundeak izatetik, antolakunde ekologistak izatera igarotzea.

#### 4.3.2. ANTOLAKUNDE EKOLOGISTAK

Antzematen dira beraz, azkenaldian eskaria hazten ari diren sektore des-materializatuak, edo des-matrilizazio gradu altukoak. Eta, azaldutakoagatik ESSko barneko formula enpresarialak erabiltzeak erraztu egingo lukeela ingurumenaren aldetik ikuspegi iraunkorragoa barneratzerako orduan. Hala ere, nahikoa al da hau iraunkortasun sendoa jorratzen duten antolakundeak sortzeko? Ikusi den moduan, iraunkortasun sendoa lortzeko, beharrezkoa da termodinamikaren lege fisikoak eta naturaren lege ekologikoak onartzen dituen arrazionaltasun batetik planteatzea (Naredo, 1996). Horregatik planteatzen ditugu antolakunde ekologistak. Hots, antolakundeak modu transbertsalean zeharkatzen duen ikuspegi ekologista (globala eta epe luzerakoa) beharrezkoa dela, iraunkortasuna lantzen duen sail bat ezartzea baino.

Izan ere, beharrezkoa da iraunkortasun sendoaren terminoan sakontzeko, antolakundeek sortu dezaketen eragin lokalen edo/eta partzialen ikuspegia gaintitzea, eta haien jarduerak sortzen duen eragin globala iraunkortasunaren terminoetan planteatzea. Hau da, ez zaio soilik antolakundeek euren jardueragatik sortzen dituzten eragin lokalei (une eta espazio konkretu batean mugatutako eraginak) edo/eta partzialei (jarduera konkretua aurrera eramateko beharrezkoak diren azpisistema natural edo lehengai jakinak) begiratu behar, baizik eta haien jarduera aurrera eramateak sortzen dituen eragin globalei (jarduerak eskala globalean hedatuko balira, ingurumenaren gain izango zuten eragin guztia epe luzean) begiratu behar zaie. Hots, herri, hiri, lurralde, edo gure kasuan, antolakunde baten garapena, nahiz eta iraunkortasun lokal edo/eta partzialaren norabidea hartu, epe luzean eta eskala globalean izango duen eraginei begiratzeari beharrezkoa da iraunkortasun sendoren ikuspegitik (Naredo, 1996). Eta argi dago, iraunkortasun sendoaren ikuspegitik ez da ingurumenaren ondasunak edo kapital naturala, monetizazioaren bitartez, kapital artifizialarekin ordezkatzeko aukerarik ematen. Iraunkortasun sendoak, esan bezala, termodinamikaren lege fisikoei eta naturaren lege ekologikoei mugatuta baitago.

Alabaina, entitate mikroekonomiko baten eragin globalak azaltzen dituen indikatzaile batera bat osatzea zaila da. Izan ere, kapital naturalaren narriadura neurtu nahi dituzten adierazleak eskuratu nahiez gero, adierazle kimiko, fisiko eta biologikoengana jo beharko litzateke, oharpen garrantzitsu batekin: ez dela iraunkortasunaren adierazle biofisikorik existitzen adierazle guztiak bereganatu dazakenik (Alier, 1999). Eta beraz, hemen uzten da etorkizunerako ikerketa ildo ireki bat.

Hala ere, EEEren ikuspegitik harreman ekonomiko globalen inguruan aritu den Bermejo-rentzat (1994), energia berriztagarri propioetan eta naturatik ateratako baliabideetan oinarritzen den ekonomia batek, berez ez dituen baliabideak eskuratzeko, merkatu internazionalaren erlazio solidarioen bitartez bermatu dezake ezinbestekoak diren beharrak. Hortaz, EE diziplina akademiko batetik haratago doa hainbat autoreen aburuz, ekonomiaren sistema kutsakor eta suntsitzailearen eraldaketa lortu nahi baldin bada teoria nola eraman behar den praktikara ere jorratu behar da; eta esparru honetan, argi dago, ESSaren irakaspenak eskaini diezaioke.

Beste ildo batetik, antolakunde ekologistak sortzen badira, beharrezkoa izango da ere moneta horren beste aldea aztertzea. Kontsumoa alegia. Nola lortzen da ingurumen-iraunkortasunagatik arduratuta dagoen kontsumo eredu batetik kontsumo ekologiko batera igarotzea? Lehenik beharrezkoa da kontsumoak duen boterea kontutan hartzea. Izan ere, kontsumoa gaur egungo gizarte ereduaren sostengu garrantzitsuenetako bat da. Gaur egungo eredu sozialak ongizate maila altuagoa lortzeko, ahalik eta ondasun gehien kontsumitu behar direnaren ideia alienatzailearen gainean oinarritzen baita. Ongizatea geroz eta gehiago kontsumituz lortzen den ilusio hori asetzeko etengabeko jarduera ekonomikoa eskatzen baitu. Ilusio edo sineskeria hau hain errotuta dago gizartean zein ohikoa da kontsumo neurgailuak erabiltzea ongizatea neurtzeko. Kontsumo arduratsua, ekonomiaren globalizazioaren eta liberalizazioaren aurreko planteamendu kritiko baten ondorioa da; non balio sozial eta ekologikoak oinarri dituen behetik gorako «ekintza politikoa» den. Kontsumo arduratsua, kontsumo ekologikoa, solidarioa, lokala, justua eta kooperatiboa barneratzen du (Lema, García eta Muñoz, 2015). Kontsumoaren ekintza beraz, boterea ematen dio kontsumitzaileari, langile eta haurren esplotazioa, ekosistemen suntsiketa, bazterketa soziala edo aberastasunaren kontzentrazioa bezalakoak babestea edo ez erabaki baitezake. Oro har, benetan arduratsua den kontsumo batek, ongizate pertsonala zein kolektiboa bilatzen duen eredu izan beharko luke (Mance, 2008); bizitzaren erreprodukzio hedatua ahalbidetzen duena termino sozial eta ekologikoetan, epe luzera eta eskala globalean.

Ekonomia Solidarioak badu bere aldetik kontsumitzaileak biltzeko gaitasuna kontsumo eredu honen inguruan. Izan ere, Ekonomia Solidarioak azkenengo urteetan garatu duen lanabesik garrantzitsuenetarikoa merkatu

soziala da. Merkatu soziala, REAS-en hitzetan hurrengoa litzateke: «Merkatu Soziala, lurralde jakin batean, irizpide etiko, demokratiko, ekologiko eta solidarioekin funtzionatzen duen ikasketa, ondasun eta zerbitzuen ekoizpen, banaketa eta kontsumo sare bat da» ([www.mercadosocial.net](http://www.mercadosocial.net)).

#### 4.3.3. EKONOMIA EKOLOGIKOA ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA HERRI MUGIMENDUEN ELKARGUNE

Dudarik gabe, ESSak zein EEak bat egiten duten puntu esanguratsuenetarikoa, agenda politiko berri bat aurrera eramateko orduan, herri mugimenduei ematen dieten zentraltasunean dago. Neurri handi batean, biak bertatik sortu eta garatu diren ikuspegiak direlako. Horrela, mugimendu ekologista, feminista, ekofeminista, altermundista, desazkundera etab. korrante hautetako bakoitzari oinarri militantea emateaz gain, elkargunerako espazio egokiak ere badira. Ez da artikulu honen asmoa mugimendu haue-tan guztietan sakontzea, hala ere, esan bezala, bi korrante hauen arteko agenda politiko partekatua aurrera eramateko beharrezkoak dira, lehenago azaldu den bezala kritika ekonomikoa gizarteratzeko, eta horrenbestez, gizartea ahalduntzeko eredu ekonomiko hegemonikoen aurrean.

Maila teorikoago batean, aipatutako mugimenduek egiten dituzten aldarrikapenak, bat egiten dituzte kasu askotan bai ESSak eta bai EEak proposatzen dutenarekin. Adibidez, ekofeminismoak, zeinek ekologismoaren eta feminismoaren arteko bateragarritasunak bilatzen dituen, ondoren elkarren arteko sinergiak sortzeko (Herrero, 2013), aztertzen ari ditugun bi korrontee-kin lotura zuzena dauka. Alde batetik, bistakoa da, haren erroan mugimendu ekologista egonik, EEarekin harremana izango duela. Baina, bestalde ere, ekologismoak eta feminismoak ESSarekin duten harremanei esker, azken honekin lotu dezakegu. Izan ere, pertsonak, planeta eta haien erreprodukzioa erdigunean jartzeak, ohiko ekonomiaren lehentasunen iraulpena dakar. Eta ESSa, ekonomia eta harreman ekonomikoak birpentsatzen saiatzen da, bestelako gizarte bidezkoago, iraunkorrago eta solidarioagoa eraikitzeko (Díez eta Askunze, 2014). Oro har, ekofeminismoak, pertsonak ekodependienteak eta interdependienteak direla esaten du (Herrero, 2013). Hots, bizitza sostengatzeko beharrezkoak direla bai natura eta baita beste pertsonak ere. Eta logika horretan ere lan egiten du ESSak. Esan den moduan, pertsonak eta garapen komunitarioa sistema ekonomikoaren erdigunean jarriz, egungo ekonomia, bidezko ekonomia demokratikoago eta iraunkorrago bihurtu nahi duen heinean.

Desazkundera bestalde, ekoizpenaren eta kontsumoaren mailen bidezko murrizketa bezala definitzen den mugimendu politiko, ekonomiko eta soziala da. Haren aburuz, gizakiaren ongizatea areagotu eta baldintza ekologikoak hobetu daitezke, bai tokian tokiko mailan, bai maila globalean, epe

motzean zein luzean (Schneider *et al.*, 2010). Esfera ekonomikoa gainditzeko, ingurumen-justiziaren irizpide normatiboa planteatzen duelako; eta beraz, argi geratzen da mugimendu honen inplikazio politiko eta soziala ere. Izan ere, garatuta dauden herrialdeek, historian zehar eduki izan duten botere harremanengatik, garapen prozesuan dauden estatuentzako eta etorkizuneko belaunaldientzako baliabide eskuragarrien kantitatea murriztu izan dituzte. Hori dela eta, desazkundearen pisu gehiena garatuta dauden gizarteetan gainean jarri behar da, beraien desazkundearekin batera ekonomia globalaren tamaina murriztu eta oinarritzako beharrak aseta ez dituzten gizarteetan garapena bermatu beharko lukeen era bat ahalbidetuz. Modu honetan ere, munduak pairatzen ari duen iparraldeko eta hegoaldeko desoreka irauliz, gehien garatuta dauden estatuak sortutako zor ekologikoa murriztera lagunduko luke, hegoaldeko komunitateen oinarritzako beharrak asetzeko ahalbidetuko dituzten baliabideak bermatzen diren bitartean (Hoyos, 2004). Beste modu batera, iparraldeko ekonomiek ezin izango liriteke ezagutzen ditugun moduan mantendu, hegoaldetik inportatutako lehengaien prezioak hain merkeak izango ez balira. Izan ere, iparraldeko ekonomiek nazioarteko merkataritzaren desparekotasun estrukturalaz baliatzen dira euren ekonomien metabolismorako beharrezkoak dien lehengaiak hegoaldetik prezio baxuetan lortzeko. Lehengaien esportazioek ez dute kontutan hartzen hauek lortzeak dakartzaten ingurumen-kostuak, horrenbestez autore batzuentzako interesgarria litzateke nazioarteko merkataritzan sortzen diren ingurumen-kanpo eraginak negatiboen gaineko zerga jartzea, ondoren pobrezia kontrako neurriak aurrera eramanez ahal izateko (Martínez-Alier, 2008b). Argi daude beraz, kasu honetan ere, desazkundearen eta EEaren arteko loturak. Desazkundea 70eko hamarkadan sortzen den kontzeptua da *Meadows* txostenaren eta beste batzuen argitalpenaren babesean; eta EEa, gizarte-ekologia eta antropologia ekonomikoa bezalako diziplina akademikoei lotura adierazgarria erakusten du (Martínez-Alier *et al.*, 2010). Bestalde, desazkundea eta ESSak (eta mugimendu altermundistarekin ingurumen-justiziaren irizpidearen bitartez) ere euren harremanetarako puntuak erakusten dituzte. ESSak proposatzen dituen lan eta ekoizpen ereduak, ingurumenarekiko modu arduratsuan aurrera eramango dira. Kontsumoa, kontsumo arduratsuen terminoetan aurrera eramango da, behar pertsonalak asetzera bideratuta dagoena, baina ongizate kolektiboaren aurka ez doana. Hots, ingurumen eta gizarte ikuspegi batetik bidezkoa den kontsumo eredu bultzatzen da. Eta azkenik, nazioarteko merkataritza justizia terminoetan aurrera eramatea aldarrikatzen da ESStik ere; bai justizia sozialari dagokionez, baina baita ere ingurumen-justiziari dagokionez (REAS, 2011).

Herri mugimenduak EE eta ESSaren elkargune izan behar dira agenda politiko bateratua burutu ahal izateko. Izan ere, ingurumen-iraunkortasu-

nari lotutako arazoei (eta beste arazo sozialak ere) ezin zaie modu eraginkor batean heldu pertsonen eta komunitateen kontzientziazio eta parte-hartzerik gabe. Hots, eraldaketa ez da soilik aldaketa teknikoaren bitartez emango den prozesu bat, baizik eta arrazionaltasun berri bat beharrezkoa da; gizar-teetan eraldaketa ahalbidetuko duten sinesmen, jarrera eta balio berriak sortuz (Tomás, 1997). Eta horretan, herri mugimenduek badute, seguruenik maila akademikoa baino gehiago, gizartera heltzeko gaitasuna.

## 5. Ondorioak

Garapen historiko ezberdina izan duten, baina xx. mendeko 70eko hamarkadatik aurrera hedapen esponenziala izan duten bi teoria dira EEa eta ESSa. Beharbada, garai aldakor honek dakarren gabezia ekologiko eta sozialei ikuspegi kritikoetatik erantzuteko sortuak izan direlako. Artikulu honen helburu nagusia, argi dago, bi teoria hauen hurbilketarako pauso bat ematea izan da hain zuzen ere.

Kapitalismo merkantilistak ez du etorkizun oparorik iragartzen; gizakion eta naturaren iraunkortasunarekin bat datorrenik ez bederen. Bizitzaren erreproduktzioerako beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzu guztiak salgai bihurtzea du helburu; hauek merkatuaren logikapean uzteko. Aldi berean, merkatu logika horretatik kanpo dagoena baliorik gabe uzten duen irakurketa ekonomiko partziala burutzen du ohiko ekonomiak. Logika horrekin, jarduera ekonomikoek sortzen dituzten kalte ekologikoak —hondamendi ekologikoak, bioaniztasunaren galera, deforestazioa, klima aldaketa etab.— merkatu akats gisa kontsideratzen dira, eta kaltearen espresio monetarioaren bitartez konpontzen da.

Pentsamendu ekonomikoaren arloan alternatiba bideragarriak sortzea zaila bada ere, bi korrante ekonomiko hauek proposatzen dituzten printzipioekin, bestelako sistema postkapitalista baterako bidea ireki eta lehenengo pausoak ematea lortu da. Azken batean, desadostasunak izan arren, sistema kapitalistak oinarrian duen bizi eredu indibidualista, eta hau sostengatzen duten ekoizpen eta kontsumo asturugaitza desegitea dute helburu. EE eta ESSak, gizakion eta planetaren erreproduktzioa sistema ekonomikoaren erdigunean egon behar direla aldarrikatzen dute; eta beraz, ekonomia, hauek asetzeko beharrezkoak diren beharrak hornitzeko bitartekoa izan behar duela. Lege fisiko eta naturalei azpiratuta dagoelarik.

Agenda politiko bateratu bat sortzeko prozesuan eta ingurumen-iraunkortasunaz arduratzen diren garapen teorikoak gizarteratzeko orduan, herri mugimenduek duten garrantzia aitortu behar zaie. Hau da, herri mugimenduak, praktikan eredu hauek konbergitzen duten espazioak ere badira.

Bakoitzak bere ezagupenetatik abiatuta, ideiak elkarbanatuz eta helburu bateratu bat sortuz, baterako ezagutza tazituak sustatzeko.

Hurrengo taulan artikuluan zehar jorratu izan diren EEaren eta ESSaren arteko desadostasunak, bateragarritasunerako puntuak eta adostasunak bildu dira:

### 3. taula

Ekonomia Ekologikoaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren arteko desadostasunak, bateragarritasunak eta adostasunak

	Ekonomia Ekologikoa	Ekonomia Sozial eta Solidarioa
Desadostasunak	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Ingurumen-iraunkortasun printzipioa zaintzen duen edozein sistema sozioekonomikoaren alde</li> <li>— Iraunkortasun sendoaren aldekoa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Sistema sozioekonomikoa eraldatzeko printzipioak</li> <li>— Praktikan iraunkortasun ahula nagusitzen da</li> </ul>
Bateragarritasunak	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Kritika teorikoa kapitalismoari</li> <li>— Hazkunde ekonomiko mugagabeari kritika</li> <li>— Ekonomia naturaren azpimultzo bat bezala.</li> <li>— Ingurumen-justizia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Alternatiba ez kapitalistak</li> <li>— Mozkinen maximizazioari kritika</li> <li>— Ekonomia gizartearen azpimultzo bat bezala (eta naturaren azpimultzo bezala ikuspegi batzuetatik).</li> <li>— Justizia soziala</li> </ul>
Adostasunak	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Ekonomia neoklasiko, sistema kapitalista eta ideologia neoliberalarekiko ikuspegi kritikoak.</li> <li>— Agenda politiko bateratu bat emateko beharra.</li> <li>— Herri mugimenduen elkargune dira (mugimendu ekologista, feminista, ekofeminista, altermundista, deshazkundera etab.).</li> </ul>	

*Iturria.* Geuk egina.

Bukatzeko, bat egiten da ESSak ekonomikoa denaren ikuspegia merkaturatik haratago ulertzen duen arren, oraindik ez dituela ingurumen-iraunkortasunarekin lotutako erlazioak guztiz ebazten esaten duten autoreekin. Baina aldi berean zaila ematen du EEak planteatzen duen eredu ekonomikoa aurrera eramatea hazkunde ekonomikoa baino beste norabiderik ezagutzen ez duen sistema baten baitan. Eta ildo horretan ESSak badu zer irakasterik. Horregatik, nahiz eta bidean barne eztabaidak eta desadostasunak



izango dituzten, garrantzitsua da bi teoria hauen arteko hurbilketa ematea. Bi ikuspegiak bidean topo egiteko ezaugarriak dituztelako, eta elkarri haztea ahalbidetuko dituzten irakaspenak ere agerikoak direlako.

## 6. Erreferentzia bibliografikoak

- Aguilera, Federico (1992): Sobre la irrelevancia conceptual de la economía ambiental, *Comunicación en las III Jornadas de Economía Crítica*, Barcelona.
- Aguilera, Federico & Alcántara, Vicent (1994): De la economía ambiental a la economía ecológica, En Aguilera, Federico, Alcántara Vicent (Comp.): *De la Economía Ambiental a la Economía Ecológica*. Fuhem e Icaria, 9-21.
- Askunze, Carlos (2007): Economía Solidaria, En Celorio, Gema y López de Muñiain, Alicia (coords.): *Diccionario de Educación para el Desarrollo*, Bilbao, He-go, 107-113.
- Askunze, Carlos (2013): Más allá del capitalismo: alternativas desde la Economía Solidaria, *Documentación social*, (168), 91-116.
- Azkarraga, Joseba, & Altuna, Larraitx. (2012): Cooperativismo, economía solidaria y paradigma ecológico. Una aproximación conceptual, *Ecología política*, (44), 33-42.
- Ballester, Marjorie H. (2008): Economía ambiental y economía ecológica: un balance crítico de su relación, *Economía y sociedad*, (33), 55-65.
- Barkin, David, & Lemus, Blanca (2011): La Economía Ecológica y Solidaria: Una propuesta frente a nuestra crisis, *Sustentabilidades*, (5), 1-15.
- Bermejo, Roberto (1994): *Manual para una economía ecológica*. Centro de Documentación y Estudios para la Paz: Bakeaz, Bilbao.
- Coraggio, Jose Luis (2009): Economía del trabajo, En CATTANI. Antonio, Coraggio, José Luis, & Laville, Jean Louis (org): *Diccionario de la otra economía*, Altamira, Buenos Aires, 133-143.
- Costanza, Robert (1989): What is ecological economics?, *Ecological Economics*, (1), 1-7.
- Costanza, Robert (1999): *Una introducción a la Economía Ecológica*. Compañía Editorial Continental. Primera edición, México.
- Dacheux, Eric, & Goujon, Daniel (2011): The solidarity economy: an alternative development strategy?, *International Social Science Journal*, 62, 205-215.
- Defourny, Jacques, & Develtere, Patrick. (1999): Origines et contours de l'économie sociale au Nord et au Sud, *L'économie sociale au Nord et au Sud*, 25-50.
- Díez, Marian & Askunze, Carlos (2014): Presentación. En *Sostenibilidad de la vida. Aportaciones desde la economía Solidaria, Feminista y Ecológica*. REAS Euskadi. 15-26.
- Etxano, Iker (2015): *Ekonomia eta iraunkortasuna: oinarriak eta aplikazioak*. Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

- Europar Komisiao (1995): *The local development and employment initiatives, Survey in the European Union*, European Commission, Brussels.
- Evers, Adalbert, & Laville, Jean-Louis (Eds.) (2004): *The third sector in Europe*. Edward Elgar Publishing.
- Georgescu-Roegen, Nicholas (1971): *The Entropy Law and the Economic Process*, Harvard University Press.
- Gui, Benedetto (1991): The economic rationale for the «Third Sector». *Annals of public and cooperative economics*, 62(4), 551-572.
- Guridi, Luis, Pérez de Mendiguren, Juan Carlos, Iametti, Ana, Deux, María Victoria, Vázquez, Gonzalo, & URIBE, Amaia. (2011): Experiencias de Economía Social y Solidaria: compartiendo estrategias y aprendizajes. *Papeles de economía solidaria*, (2), 1-77.
- Herrero, Yayo. (2013): Miradas ecofeministas para transitar a un mundo justo y sostenible, *Revista de economía crítica*, (16), 278-307.
- Hoyos, David (2004): La deuda ecológica vasca. En *Euskal Herria nora zoaz?: retos sociales y ambientales para la sostenibilidad*, Ekologistak Martxan, 53-68.
- Jubeto, Yolanda & Larrañaga, Mercedes (2014): La economía será solidaria si es feminista. Aportaciones de la Economía Feminista a la construcción de una economía Solidaria. En *Sostenibilidad de la vida. Aportaciones desde la economía Solidaria, Feminista y Ecológica*. REAS Euskadi. 15-26.
- Laville, Jean-Louis (2009): Definiciones e instituciones de la economía. En Coraggio, Jose Luis (comp.): *Qué es lo económico*, 1-41.
- Laville, Jean-Louis (2015): *Asociarse para el bien común: Tercer sector, economía social y economía solidaria*. Icaria.
- Laville, Jean-Louis, & Jané, Jordi G. (2009): *Crisis capitalista y economía solidaria. Una economía que emerge como alternativa real*. Icaria.
- Laville, Jean-Louis & Nyssens, Marthe (2000): Solidarity-Based Third Sector Organizations in the «Proximity Services» Field: A European Francophone Perspective. *Voluntas: International Journal of Voluntary and Nonprofit Organizations*, 11(1), 67-84.
- Lema, Isabel, García, Ricardo, & Muñoz, Jesús Miguel (2015): Las iniciativas de consumo responsable como espacios de innovación comunitaria y aprendizaje social. *Revista de estudios e investigación en psicología y educación*, (14), 29-33.
- Mance, Euclides A. (2008): *La revolución de las redes: la colaboración solidaria como una alternativa pos-capitalista a la globalización actual*. El Autor.
- Martínez, Ángel, & Álvarez, Santiago (2008): La economía crítica y solidaria: perspectivas teóricas y experiencias para la construcción de una economía alternativa. En *La situación del mundo 2008. Innovaciones para una economía sostenible. Informe anual del Worldwatch Institute sobre el Progreso hace una Sociedad Sostenible*, Barcelona: CIP-Ecosocial, 371-486.
- Martínez-Alier, Joan (1999): *Introducción a la economía ecológica*. Rubes.
- Martínez-Alier, Joan (2008a): La crisis económica vista desde la economía ecológica, *Ecología política*, (36), 23-32.

- Martínez-Alier, Joan (2008b): Conflictos ecológicos y justicia ambiental. *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global*, 103, 11-28.
- Martínez-Alier, Joan, Pascual, Unai, Vivien, Franck-Dominique & Zaccai, Edwin (2010): Sustainable de-growth: Mapping the context, criticisms and future prospects of an emergent paradigm, *Ecological Economics*, 69(9):1741-1747.
- Monzón, José Luis (2003): El cooperativismo en la historia de la literatura económica, *CIRIEC-ESPAÑA, Revista de economía pública, social y cooperativa*, (44), 9-32.
- Monzón, José Luis (2006): Economía Social y conceptos afines: fronteras borrosas y ambigüedades conceptuales del Tercer Sector», *CIRIEC-España, revista de economía pública, social y cooperativa*, (56), 9-24.
- Monzón, José Luis & Chaves, Rafael (2012): *La economía social en la Unión Europea*. Comité Económico y Social Europeo
- Moulaert, Frank., & Ailenei, Oana. (2005): Social economy, third sector and solidarity relations: A conceptual synthesis from history to present, *Urban studies*, 42(11), 2037-2053.
- Naredo, Jose Manuel (1994): Fundamentos de la economía ecológica. En Aguilera, Federico, Alcántara Vicent (Comp.): *De la Economía Ambiental a la Economía Ecológica*. Fuhem e Icaria, 231-252.
- Naredo, Jose Manuel (1996): Sobre el origen, el uso y el contenido del término sostenible, *Documentación social*, 102, 129-147.
- Naredo, Jose Manuel (2002): Economía y sostenibilidad: la economía ecológica en perspectiva, *Polis Revista Latinoamericana*, (2). 1-29.
- Naredo, José Manuel (2006): *Raíces económicas del deterioro ecológico y social. Más allá de los dogmas*. Madrid: Siglo XXI.
- Neumayer, Eric (2003): *Weak versus strong sustainability: exploring the limits of two opposing paradigms*. Edward Elgar Publishing.
- Norton, Bryan (1992): Sustainability, human welfare, and ecosystem health, *Environmental values*, 97-111.
- Pearce, David, Abod, Carlos, Campos, Pablo & Turner, Kerry (1995): *Economía de los Recursos Naturales y del Medio Ambiente*, 2ª edición. Ediciones Celeste. Madrid, España.
- Pérez, David, Simon, Xavier, & Soler, Marta (2012). Economía ecológica y ecología política en el ámbito de la educación ambiental, *Asociación de Economía Ecológica en España*, (2), 1-19.
- Pérez De Mendiguren, Juan Carlos, Etxezarreta, Enekoitz, & Guridi, Luis (2009): Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria diferentes conceptos para un mismo debate, *Papeles de Economía Solidaria*, (1), 1-41.
- Pérez De Mendiguren, Juan Carlos & Etxezarreta, Enekoitz. (2014): Ekonomia sozial eta solidarioa zer da eta nola ulertzen da, *Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria-Revista Vasca de Economía Social*, (X urteurrena), 13-34.
- Pérez De Mendiguren, Juan Carlos & Etxezarreta, Enekoitz. (2015): Sobre el concepto de economía social y solidaria: aproximaciones desde Europa y América Latina, *Revista de Economía Mundial*, (40), 123-144.

- Polanyi, Karl (1944): *La gran transformación: Los orígenes políticos y económicos de nuestro tiempo*. Fondo de Cultura Económica. Mexico.
- Razeto, Luis (1993): *Los caminos de la economía de solidaridad*. Vivarium, Santiago.
- Razeto, Luis (1999): La economía de solidaridad: concepto, realidad y proyecto, *Persona y sociedad*, 13(2), 1-19.
- REAS, Red de Redes de Economía Alternativa y Solidaria (2011): *Carta de principios de la economía solidaria*. Berreskuratuta (2019/09/04): [https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/2011%20EKONOMIA\\_SOLIDARIOAREN\\_GUTUNA\\_REAS.pdf](https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/2011%20EKONOMIA_SOLIDARIOAREN_GUTUNA_REAS.pdf)
- Rosas-Baños, Mara (2012): Economía ecológica y solidaria: rumbo a una propuesta teórica integrada que visualice las rutas hacia la transición, *Revista Iberoamericana de Economía Ecológica* (18), 89-103.
- Schneider, François, Kallis, Giorgos & Martinez-Alier, Joan (2010): Crisis or opportunity? Economic degrowth for socialequity and ecological sustainability. Introduction to this special issue. *Journal of Cleaner Production*, 18, 511-518.
- Taibo, Carlos (2010): *Decrecimiento, crisis, capitalismo*. Colección de Estudios Internacionales, (5).
- Tomás, Juan A. (1997): The prospects for the social economy in a changing world, *Annals of public and cooperative economics*, 68(2), 247-279.
- Van den Bergh, Jeroen (2000): Ecological Economics. Themes, Approaches, and Differences with Environmental Economics, *Tinbergen Institute Discussion Paper*, TI 2000-080/3.